



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-12-18

VIIURTEA 1.585 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Mujika eta Otaegi Aizkolari Txapelketako finalean izango dira

JEXUX MARI MUJIKA Lehen Mailako finalera iritsita aurtengo helburua bete duela dio ibartarrak

JOSEBA OTAEGI Zizurkilgo aizkolaria «presiorik gabe» ariko da etzi, Arbizun izango den saioan 6



Irurako musika eskola berrian aritu ziren musikari gazteak. I. GARCIA

Hasi dira Loatzo musika eskolako umeen emanaldiak

EGUBERRIAK Atzo Iruran eskaini zuten kontzertua eta gaur Altzon izango dira 4



Ekimen irudimentsua egiteko aukera izan zuten atzokoan. A. IMAZ

Artearen bidez birziklatzen ikasi dute eskolan

ARESO Gurasoek eta seme-alabek artelanak egin dituzte etxetik eramandako hondakinekin 2



MARTXELO OTAMENDI

MARTXELO OTAMENDI
'EGUNKARIA AUZIA'N
AUZIPETUA

«Auzitegian gauzak ondo hasi arren erraz okertu daitezke»

TOLOSA Jendeari «azken bultzada» eskatzen dio kazetari tolosarrak 7

DAGOZKIEN ESKUBIDEEN JABE

euska
presoa
euska
herri

U2 DENOK BILBORA!

MANIFESTAZIO NAZIONALA Bilbon, arratsaldeko 17:00etan Aita Donostiatic abiatuta



Publizitate sexistaren inguruko hitzaldia egingo dute bihar, 12:00etan, Leitzako Atekabeltz gaztetxean. ASIER IMAZ

Kontsumismotik ihes egiten duen egitaraua antolatu dute Atekabeltz gaztetxean

Leitza » Bihar hasi eta hilaren 26ean amaituko dira ekitaldiak, tartean Truke Azoka eta afari autogestionatua daude.

ASIER IMAZ

Leitzako Atekabeltz gaztetxean hainbat ekitaldi egingo dira abenduan barna. Gazte Asanbladako kideak aritu dira egitarau oparoa osatzen, Leitzaldeko Bilgune Feministaren eta hainbat herritarren laguntzarekin.

Gaiean hartu duten lan guzti horren zergatia honela azaldu dute antolatzaileek: «Zoriontasunez eta elkartzasunez betetzen gaituzten data hauetan, badirudi

» EGITARAUA

Bihar, abenduak 19

■ **12:00etan.** Publizitate sexistaren inguruko hitzaldia.

Abenduak 22, asteartea

■ **16:00etan.** Saskigintza eta malarak.

Abenduak 23, asteazkena

■ **16:00etan.** Paperezko karterak

dena arrosa kolorekoa dela... baina gazteok kritiko izan nahi dugu antzerki honen aurrean».

Eguberrietako kontsumismotik urrun kokatu nahi dute euren burua Gazte Asanbladako kideek. Hori praktikan jartzeko, hitzaldi eta tailerrekin batera, Truke Azo-

ka antolatu dute. Helburu eta ekimen guzti hauek aurrera ateratzeko, «herritarren laguntza ezinbestekoa» izan eta izango dela aitortu dute. Hori dela eta, eskerrak emateaz gain lan honetan parte hartzera deitu dituzte herritarrak: «Animatu eta azaldu!».

Abenduak 26, larunbata

■ **11:00etatik 20:00etara.** Truke Azoka.

■ **21:30ean.** Afari autogestionatu egingo dute eta behin hau amaitzean pesta izango dute gaztetxean.



Anjel Lertxundirekin solasean

LEITZA » Amazabal Institutuko ikasleek, batxiler mailako lehen eta bigarren urtekoek, nobela beltza eta Anjel Lertxundi ezagutzeko aukera izan zuten atzokoan. Lehenik, idazleak bere azken lana aurkeztu zien ikasleei, *Zoaz infemura, laztana*. Ondoren, galderen txanda etorri zen eta Lertxundiren erantzunek jakin-mina piztu zuten liburutegiko gelan. A. IMAZ



Artearen bitartez birziklatzen

ARESO » Eskolan birziklatze eta berrerabilpen programa lantzen ari dira. Honen baitan, haur eta gurasoek ekimen irudimentsu bat egiteko aukera izan zuten atzokoan. Soinketa gelan bildu ziren lehenik, etxetik eramandako hondakinekin. Ondoren, artelanak egiten hasi ziren denak, plastikoa, tela, kortxoak, tapoiak... oinarritzko lehengai hartuta. A. IMAZ

20. URTEBETETZE OSPAKIZUN BIRA
ORAIN CD BIKOITZ ETA DVD-AN

Sulagar
20 URTE

Jo Te Ke Ekiztopenak | Kontratazioa: T. 91516374 | www.sulagar.com

Egunkaria
libre!

manifestazio
nazonala

Abenduak 19, larunbata
17:00etan Bilboko Autonomia kaletik

munduan libre bizi ahal izateko Egunkaria libre munduan bizi ahal izateko

Laburrak

Ostiraleroko azoka eskola inguruan egingo da gaur

LEITZA » Ostiraleroko plazan azoka egin ohi da Leitzan. Egun hauetan ordea, plaza sarrerako *adokinak* konpontzen ari dira eta ibilgailuek ezin dute barrura sartu. Arazo hauek medio, azoka lekuz aldatzea erabaki dute. Gaurkoan beraz, Amazabal Institutuaren ondoan dagoen futbol zelaian jarriko dute azoka.

Bigarren Eskuko Azoka gaur 17:00etatik aurrera

ASTEASU » Asteasuako 12-16 urteko gazteek gaur, 17:00etatik aurrera, Bigarren Eskuko Azoka jarriko dute herriko plazan. Bertan txiki-entzatat marrazketa tailerra egongo da: aurpegia margotuko dute, Olerterorri gutuna idatzi, etxea apaintzeko poltsak egingo dituzte eta abar. Gazteek herritar guztiak gonbidatu dituzte Bigarren Eskuko Azokara.

Gabonetako Azoka Berezia bihar, herriko hiru gunetan

Gastronomia » San Frantziskon, Triangulon eta Plaza Zaharrean ehunka postu egongo dira; Odolki Lehiaketa ere egingo dute.

INIGO TERRADILLOS

Txuletaren Festaren ostean, urteko azken azoka berezia izango da bihar Tolosan, Gabonetako Azoka, hain justu. Herriko hiru gunetan, hau da, San Frantzisko pasealekuan, Triangulo plazan eta Plaza Zaharrean, jakiak eta artisauen lanak egongo dira, eta Odolki Lehiaketa ere egingo dute. Horrez gain, larunbateroko postuak ere egongo dira Zerkausion, Berdura plazan eta Euskal Herria plazan.

San Frantziskon, jakiak eta artisautza

Era guztietako jakien erakusleho izango da San Frantzisko pasealekua. Ahatekiak, kontserbak, gozokak, ezta edota gazta bezalako produktuak egongo dira eskuragarri bertan jarriko dituzten mahaietan. Jakiez gain, artisauak landutako lanak ere izango dira artxibo aurreko postuetan.

Triangulon, Odolki Lehiaketa

Barazki eta fruitu ugari izango da Triangulo plazan. Baina, baita ez-tia, ahatekiak, gazta, txokolata eta ardoa ere, besteak beste. Bestalde, herriko dendariek kalera aterako dituzte euren produktuak: jostailuak, oparietarako gaiak, kosmetika, zeramika...



Jendetza izango da, urtero bezala, biharko azokan. ESTIEZEIZA

San Blas Elkarteak antolatzen duen Odolki Lehiaketa ere hartuko du Triangulo plazak. 09:00etarako hasiko dira lehiaketan parte hartuko duten harakinak odolkiak sutan jartzten, eta 13:00ak aldera emango dute jakitera aurtengo Odolki Lehiaketako irabazlearen izena. Bitartean, goizean zehar, lehenengo urteko odolki lehiaketako irabazlearen odolkiak dastatzeko aukera izango da.

Oraingoan, hamabi harategik eman dute izena, eta parte hartu nahi izanez gero, 943 69 75 21 telefono zenbakira deitu beharko da.

Gaur eguerdian, 13:00etan itxiko dute izena emateko epea.

Animaliak Plaza Zaharrean

Plaza Zaharra izango da animalien txokoa. Bertan, oreinak eta euskal txerriak jarriko dituzte, eta horien produktuak ere salgai eta dastagai izango dira.

Esklerosi anizkoitza dutenen alde

Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarteak elkartzun tonbolarri jarriko du Triangulon azoka bereziarekin batera. Ekimen hone-

kin, gaixotasunaren berri eman nahi dute eta dirua bildu elkarteak burutzen dituen ekintzetarako. 08:00etan jarriko dute tonbola eta 14:00ak arte egongo da zabalik. 2 euro balio duten txartelak erosi beharko dira parte hartzeko, eta sarituak 1.500 baino gehiago direla azaldu dute.

HITZA ere azoka berezian

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria ere izango da Gabonetako Azoka Berezian, Plaza Zaharrean, hain zuzen. Bertan eskuratu ahaliko du gerturatzten den orok 2010 urteko mahai egutegia, egunkaria etxean jaso ahal izateko harpidetza egin ahaliko da, edota HITZAREN materiala ikusi eta erosi, besteak beste.

Berdura Plazan, alkatxofak

Larunbateroko ohiko postuak ere egongo dira, eta Berdura Plazan berrikuntza bat izango da. Izan ere, Antton Arronizek alkatxofa eta kardoekin salmenta postua jarriko du. Frontonjatetxeko Roberto Ruiz eta Sonia Tapiak plantxan prestatuko dituzte, eta eguerdi aldera bertaratu 200 raziotik gora banatu. Konpota dastatzeko aukera ere izango da.

«Etorkinek nabaritzen dute krisia bereziki»

MIKEL MAZKIARAN » Heldu zerbitzuko langilea eta SOS Arrazakeria elkarteak kidea

Gizartea » Hitzaldia eskainiko du gaur kulturartekotasunaren inguruan, 19:30ean, Kultur Etxean.

I. TERRADILLOS

Etorkinen Eguna da gaur, eta egun honen harira, hainbat ekitaldi antolatatu ditu Ereite elkarteak. Horietako bat Mikel Mazkianek gaur emango duen hitzaldia da, Kultur Etxean, 19:30ean. Eusko Jaurlaritzako Heldu zerbitzuko langilea eta SOS Arrazakeria elkarteak kidea da, eta Kulturartekotasuna krisi garaian gaia jorratuko du.

Nolakoa da etorkinen egoera bizi dugun krisi garaian?

Etorkinen egoera larria da. Langa-betuen kopurua asko igo da orokorrean hartuta, baina, etorkinak soilik aintzat hartzen baditugu egoera hori handiagoa da. Euskal Autonomia Erkidegoan herritarren %6 dira etorkinak. 2008an horietatik %8,5 zegoen langabezian, eta aurtentzen, berriz, %10,8ra igo da.

Zergatik eman da egoera hori?

Krisia bereziki nabaritu den sektoreetan egiten dute lan etorkin gehienek, hau da, eraikuntzan, zerbitzuetan eta nekazaritzan. Horretaz gain, etorkinak, kasurik gehienetan, lantegian sartzen azkenak izan dira, beraz, egoerak



HITZA

okerrera egitean kaleratzen lehenak izan dira. Kontuan hartu behar da, baita ere, etorkinak baka-

rrik daudela, hau da, ez dutela guk izan dezakegun gizarte sarerik, eta horrek ere eragina du, asko zaildu baitzake lana bilatzea. **Eta honen guztiaren aurrean?** Egoera ekonomiko onean aurkitzen garenean ez dago inolako arazorik, baina honek txarrena egiten duenean orduan sortzen dira arazoak, eta etorkinei zuzenean eragiten diete.

Esaterako, lana kentzen dietela bertakoei ere esaten dute batzuk, baina hori ez da horrela. Badiardi Gizarte Zerbitzuetako laguntzak ere mugatu egin nahi dituztela, edo zorrotzago jarri, eta orduan baldintza batzuk bete beharko dira zehazteko nork duen eskubidea laguntzak jasotzeko, eta hori ez dago ondo. Egoera honek onera

egin artean dagoenari eutsi beharko diogu.

Onera egiten duenean, beraz, gauzak aldatu egingo dira eurentzat?

Ziurrenik egun atzerritarrek kontratatze dauden mugak arinduko lirarteke. Baina, oro har, eta Atzerritarren Legean ikusten da hori, etorkinentzat zailtzen doaz gauzak pixkanaka.

Etorkin guztien egoera, ordea, ez da berdina izango, ezta?

Etorkinen erdia baino gehiago egoera nahiko onean bizi dela esan daiteke, baimen onkorra edo europar batasuneko baimena baitute. Beraz, beste erdia nolako egoeran dagoen ikusi behar dugu, eta nola lagundu dezakegun aztertu. Horretaz ariko naiz gaurko hitzaldian eta inkestek eta ikerketek etorkinei buruz diotenaz ere bai. Horien arabera, egoerak okerrera egiten duenean etorkinenganako jarrera aldatu egiten da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Olentzeroak zoriona ekar diezazula. Eta saskibaloiak bona bat ere bai.

'Ni Hector naiz, ni bakarrik!' antzezlan, gaur Gurea aretoan

ERREDAKZIOA

Villabonako Gurea antzokian *Ni Hector naiz, ni bakarrik!* antzezlan ikusteko aukera izango da gaur, bi saioetan, 20:00etan eta 22:30ean. Euskaraz emango dute komedia kutsuko obra eta sarrerak salgai egongo dira egunean bertan antzokiko leihatilan saioak hasi baino ordu erdi lehenago. Prezioa 8 euroko da, 6 euro Gazte Txartelarekin ordainduz gero.

Jokin Oregi da komediaren egilea eta zuzendaria. Bost aktorek parte hartzen dute: Teresa Calo, Nagore Aranburu, Aitor Beltran,

Asier Zinkunegi eta Iñaki Urrutia. Antzezlanaren protagonista Hector da, hogeita hamar urte aspaldi beteak dituen kontulari ezkongabea. Hectorrek arazo larria du: orain urte batzuk «ahotsak» entzuten hasi zen bere baitan, gero ahotsok «gorpuzten» joan ziren eta egun hezur-haragizko bi ni ikusten ditu bere aldamenean. Bi ni horiek, zirikatzailea bata, maltzur samarra bestea, ezin ditu inola ere uxatu. Arazoari aurre egiteko psikologoarengana joatea erabakitzen du, hain justu, gaztaroan eza-gutu zuen neska batengana.



Eguberrietako emanaldiak hasi dira

IRURA Eguberrien atarian, Loatzo musika eskolako ikasleek kontzertuak ematen ari dira beraien herrietan. Atzo izan zen lehenengoa, Iruran, musika eskola berria. Jende zegoen aretoa. Gaur, Altzoko elizan izango da emanaldia, 18:00etan, Olentzerotan Jakinminez kultur egitarauaren baitan. I.GARCIA

Aurrera-Saiazek lau final ditu asteburuan Gipuzkoakoan

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiaz pilota eskolakoek lau partida izango dituzte asteburuan Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan. Lehen mailako kadeteek, Zelaia eta Elustondok, bihar dute partida Beotibarren 10:15ean Oiarperen aurka. Jubeniletan, banakakoan, Arratibelek gaur du norgehiagoka Oiarpeko pilotariaren aurka 20:00etan Oiarztunen. Beste bi finalak, bihar, Hernanin, 17:00etan hasiko den jaialdian izango dira. Lehen mailako jubeniletan, Urbietan eta Zinkunegi Hernaniren aurka jokatu dute. Bigarren mailako jubeniletan Aurrera-Intxurre taldeko Egiguren eta Arregi Mundarro 2 bikotearen aurka ariko dira. Finalez gain, beste lau partida izango dituzte Aurrera-Saiazekoek Gipuzkoakoan.

12 txaranga Erramun Oiartzabalen aldeko Txaranga Egunean



Erramun Oiartzabal musikaria. HITZA

ERREDAKZIOA

Erramun Oiartzabal musikari erreteriarri laguntzeko asmoz etzirako Txaranga Eguna antolatu dute Tolosan. Oiartzabalek gaixotasun larria du (burmuineko ikutu) irailetik, hemiplejiko gelditu da eta errehabilitazioa ordaintzeko dirua lortu nahi dute festaren antolatzaileek, iaz Miguel Angel Azkarate musikari tolosarrekin egin bezala.

Festa eguerdiko 12etan hasiko da dozena bat txaranga Alde Zaharreko kaleetan kalejira eginez. Hauek dira bere parte hartzea konfirmatu duten txarangak: Iraunkorrek, Ori, Konpenezinak, Koskola, Incansables, Bilaketa, Pakaranga, Ekaitz, Sugarri, Mac Je-

aras Band, Gauerdi eta Deiar. 14:00etan txaranga guztiak Plaza Berrian elkartu eta Zerkauria joango dira bazkaltzera.

Antolatzaileek 25 eurotan jarri dituzte salgai bazkariko txartelak Tolosa, Erreterria, Irun, Donostia eta Pasaiaiko tabernetan. Bazkarira joan ezin dutenek bere laguntza eman dezakete ondorengo bi kontu korronteetan: Euskadiko Kutxan 3035 0026 26 026119578 eta Kutxan 2101 0022 04 0127112951. Lortzen den diru guztia Erramun Oiartzabali laguntzeko erabiliko dute. Omendutako musikariaren familiak «Tolosako herri osoaren laguntza eskertu nahi du, emandako laguntzagatik eta maitasun adierazpenengatik».

San Tomas azoka izango dute gaur Abaltzisketan

ERREDAKZIOA

Abaltzisketako Txalburu eskolako guraso, ikasle eta irakasleek San Tomas azoka antolatu dute gaurko. 11:00etan zabalduko dute eta 13:00ak arte iraungo du. Denetatik erosteko aukera izango da bertan. Gainera, Amezketako, Ikaztegitako eta Zubietako eskoletako ikasleek bisita jasoko dute.

digital h @

MARTXELO OTAMENDI
kazetariarekin elkarrizketa digitala
Astelehena • abenduak 21
12:00etan

Bidaliz zure galdera gure webgunera edo
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
helbidera

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko.
Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldeko-hitza.info webgunean



Eskuratu **200**ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko **DVDa berria** rekin

gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa

txapelketa bertsu nagusikoak 2 DVDtan

ABENDUAREN 24TIK AUERRERA, zure kioskoan

+ 12 €

Baduzu zer oparitu Gabon hauetan!

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



ONDDOROCK musika jaialdirako

Bihar • 22:00etan
Villabonako pilotalekuan

Ines Berasategi (Tolosa)

TXOKOA hitza

sarrerak HITZAko egoitzan



TOLOSako ORFEOIA
Gabonetako kontzertua

Abenduak 23 • 20:30ean
Leidor aretoan

Nekane Agirrezabala (Tolosa)

sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin

elkar

NIKZURI
ZUKNIRI
KULTURA
OPARI 


www.elkar.com

Joseba Otaegi zizurkildarra eta Jexux Mari Mujika ibartarra, etzi 12:30ean Arbizon jokatu den Aizkolari Txapelketako finalean izango dira nor baino nor. Duela hilabete Asteasun jokatu zen kanporaketan saikatu ostean; Senosiain, Nazabal, Lopez eta Azurmendirekin batera ariko dira. Urteko helburuak beteta, lan txukuna egiteko asmotan, lasai joango dira finalera.

«Urteko helburua beteta, presiorik gabe noa finalera eta nik dakidana eman nahi dut»

JOSEBA OTAEGI › Aizkolaria

Zizurkil » laz Bigarren Mailako txapela eskuratu zuen. Lehen aldiz parte hartu du Lehen Mailan eta finalean dago.

ENERITZ MAIZ

Joseba Otaegi 26 urteko gaztea, Asteasun jokatu zen Maila Nagusiko Euskadiko Txapelketan 5. saikatu igaro zen finalera.

Lehenengo aldiz parte hartu eta espero al zenuen finalera pasatzea?



NAIARA GARCIA

Ez nuen espero eta hasieran harrituta gelditu nintzen. Nire helburua mailari eustea zen eta finalerako saikatu gustura nago. Honekin urteko helburua bete dut.

Iritsi da ia finaleko eguna. Nola sentitzen zara?

Katarro pixka bat izan dut, baina bestela lasai. Ez daukat presiorik eta probatzeko gogoia ere badut. Gustura nago.

Zein helbururekin zoaz Arbizura?

Nire lana ahalik eta ondoan egin nahi dut. Lasai-lasai hasiko naiz eta ea gorputzak nola erantzuten duen. Nirea eman nahi dut eta ho-

rrela lan ona egin dezakedala uste dut.

Nola ikusten dituzu aurkariak?

Nazabal da faborito garbia, ez dago hura ukitzerik. Lopez eta Azurmendi bigarren postuaren lehian ibiliko dira. Senosiain ez zait iruditzen guregandik oso urrutu ibiliko denik. Mujika eta nire arteko lehia izango da.

Eta Jexux Mari Mujika?

Ondo. Beti bezain fin. Hasi eta bukatu, ez du erritmoan etenaldirik izaten eta oso erregularra da. Ezin da bere hutsaren zain egon eta aurrea hartu nahi izanez gero lana erritmo handiagoan egin behar da. **Zein helbururekin zoaz Arbizura?** Kanporaketan, finalean egin beharreko lanaren erdia izaten da. Finalerakin pentsatu ere egin gabe lan erdi horretan zentratu nintzen. Hilabete honetan, lan luzeak egin ditut, baina «puntutitik» ez pasatzen saiatu naiz.

«Finalerako ez daukat inongo helbururik, seigarren eginda ere gustura geldituko naiz»

JEXUX MARI MUJIKA › Aizkolaria

Ibarra » Bigarren urtez lehiatu da Lehen Mailako Txapelketan. Oraingoan finalerako saikatu da eta aurtengo helburua bete du.

E. MAIZ

Jexux Mari Mujika lanetik bueltan harrapatu dugu. Lasai aurkitzen da finalari begira baina eskerrik aitak prestatzen dizkiola entrenatzeko egurrak.

Espero al zenuen finalera pasatzea?

Esperantzarik gabe joan nintzen. Nire helburua, lehenengo mailari eustea zen, nahiko berria naiz eta jende ona ikusten nuen kanporaketan. Etxean oso ondo ikusten nintzen, baina plazan nahiko urduri jartzen naiz eta beldur horrekin joan nintzen. Oso ondo erantzun nuen eta urtea egin dut jada finalera sartzearekin.

Nola sentitzen zara finalaren aurrerian?

Nerbioak hasi dira, ez luke horrela behar zeren, esan bezala, urtea jada egin daukat. Arazoa da finalean egin beharreko lanak inoiz



ASIER MAIZ

egin gabe nagoela. Entrenamenduekin segitu dut eta finalean egin beharrekoarekin bi saio egin ditut. Etxean nahiko ondo aritu naiz, baina plazan ikusi beharko da.

Zein helbururekin zoaz finalera?

Ez daukat inongo helbururik, seigarren eginda ere gustura geldituko naiz. Egun ona izan eta bakarraren bat, Gipuzkoakoan bezala, atzean geratzea ere ez nizuke esango posible ez denik.

Zer moduz ikusten dituzu aurkariak?

Kanporaketan, nire aurretik egin zuten guztiek, Otaegi nuen gertuen eta orain ere bere paretsuan ikusten naiz. Nazabalek, berri, erraz irabaziko digu eta denbora asko aterako digula iruditzen zait.

Eta Joseba Otaegi?

Gipuzkoakoan eta kanporaketan hortxe ibili gara segundo batzuen aldearekin eta aurkari bat ondoan ikustekotan, Otaegi bera izango da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 • 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



5°
-3°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. ELURRA
BEROENA 1°
HOTZENA -4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo.
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Zorionak!
Oihan Calahorra Murua.
Gaur 6 urte. Zorionak
familiaren partetik.



Zorionak!

Alaia Garro Ugartemendia. Bihar 4 urte. Zorionak etxekoan partetik.

A Agenda

Kontzertua

■ **Anoeta.** Desordutan eta Kaske-zur taldeen kontzertuak Gaztetxean, gaur 23:00etatik aurrera.

Deialdiak

■ **Anoeta.** Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak «AHTaren aurka indarrak biltzeko eta aurrera begirako borroka bideak zehazteko» batzar irekia egingo du bihar larunbata, 11:00etan, udaletxean.

■ **Tolosa.** Amaroako Gabonetako koruaren entsegua izango da gaur, 20:00etan Auzoetxan. Hurrengo hilaren 22an izango da.

■ **Tolosa.** Udaberri Dantza Taldeko arduradunek haurren gurasoei ohar hau zuzendu nahi diete: bihar 13:00etan bilera egingo dute Tolosako Kultur Etxean martxoaren 27an ospatuko duten Dantzari Txiki egunaz hitz egiteko.

'Egunkaria auzia'

■ **Alegialdea.** Alegialdeko herrien artean autobus bat antolatu dute bihar 'Egunkaria auzia' salatzeke Bilbon egingo den manifestaziora joateko. Izena emateko azken eguna gaur da eta horretarako 679 671 415 telefono zenbakira deitu behar da. Amezketako ohiko tokietan ere zerrendak daude. Autobusak Amezketatik 14:30ean eta Alegiatik 15:00etan irtengo dira.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Larraia M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Zorionak!

Alaia, 4 urte. Zorionak! Txapeldun bat zara, segi horrela!

Zure hizkuntza eskubideak ezagutzen dituzu?

Gizarte alabidun honetan, zure zalantzak, galderak eta kezak argitu nahi dizkizugu. Zure eskubideak bermatzeko bitartekotzan egiten dugu lan.

elEBIDE

EUSKO JAURLARITZA GOBERNO VASCO

URTEKARIA 09

Tolosaldea eta Leitzaldea

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

TOPIC, UTOPIATIK ERREALITATERA

Operari ezazu edergintza eta ongizatea
Etorri gure operarien katalogoa ikustera



Eskolapioetako Lorategiak, 3 • IA
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

SHUYANA
EDERGINTZA

Shuyana kosmetiko denda
Korreoa kalea 1 • Tel.: 943 67 14 68

TOPIC TXOTXONGILOEN ZENTROA, ZABALIK

Azaroaren 26an, herritarrak izan ziren Topic txotxongiloen nazioarteko zentroa estreinatzen lehenak. Egun bat geroago, berriz, agintarien bisita izan zuen Tolosako zentro integralak.

Eusko Jaurlearitzako Idoia Mendia eta Inaki Arriola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haritz Solupe eta Maria Luisa Garcia, Espainiako Gobernuako Industria Saileko Joaquin Ahati, Kutxako Xabier Iturbe eta Mikel Irizar, PPko Antonio Basagoiti, Marta Dominguez atleta, Unimako hainbat ordezkari eta Tolosako Juan Garmendia Larrañaga, May Gorostiaga, Antxon Eloseggi eta Txetxo Gaztañaga izan ziren, besteak beste, Topic zentroaren inaugurazio ekitaldi ofizialean.

Ana Arretzek, Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariak, eskerriak eman zizkien Topic errealitate izateko laguntza eman duten guztiei, eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak txotxongiloen funtzioa nabarmendu zuen: «Irudimena, sormena eta parte-hartzea bultzatzen dute, batez ere gazteengan, eta horregatik da oso garrantzitsua proiektu hau».

Azaroaren 27an inauguratu zuten, beraz, ofizialki egoitza, ohiko zinta mozketarekin. Jendearen joan-etorria, ordea, goizean goizetik izan zuen Topic zentroak, herritarren artean kulturagune berriak ikusmina piztu duen seinale.

Museo iraunkorra, erakusketak, aretoa eta egoitzaren beste guztiak gertutik ezagutuz gain, beste hainbat jardueraz gozatzeko aukera izan zuten, batez ere gazte-txoeak, irekieraren bigarren egunean.

Batetik, goiz osoan txotxongiloen tailerra izan zuten zazpi urtetik gorako ehunka gaztek. Zentroaren irudia oinarri hartuta, txotxongiloak egiten aritu ziren. Piezatxoak moztu, pintatu, gorputza osatu eta makilatxoak jartzen «oso gustura» pasa zuten goiza, eta, gainera, bakoitza bere txotxongiloarekin itzuli zen etxera.



INAUGURAZIOA. Agintariak ofizialki azaroaren 27an inauguratu zuten Topic, baina bezperan herritarrentzat ireki zuten. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

Makillaje tailerrean ere gozatu zuten gazteek, txotxongiloen munduko hainbat pertsonaiak aurpegi margotzeko aukera izan baitzuten.

Arratsaldean antzezlanen bete zen Euskal Herria plaza, eta haurrek erraldoiekin batera kalejira ere egin zuten Plaza Zaharretik Euskal Herria plazaraino. Ikuskitzuek hartu zuten, beraz, herria.

Txotxongiloen ondarea jasotzeko eta zaintzeko asmoarekin zabaldu da Topic. Mundu osoko 1.500 txotxongilo daude bildurik 3.600 metro koadroko biltegian.

Merezitako omenaldia jaso zuen Antonio Zabalk Urtarrilaren 2an zendu zen Antonio Zabala herri literaturaren iker-tzaile eta suspertzaile izandakoa,

eta haren omenezko ekitaldia egin zuten Tolosako udaletxean maiatzaren 22an. Bertan izan ziren, besteak beste, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Joxe Mari Iriondo eta Pello Esnal Auspoo taldeko partaideak, Andres Urrutia euskaltzainburua, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia eta Zabalaren familiakoak, lagunak eta herritarrak.

Haren gertukoek trikua bezala deskribatu zuten Antonio Zabala: «Arantzak baitzuten kanpoan, baina gerturatuz eta ezagutuz joan heinean, haragi bigunarekin eta lagunartekoarekin egiten zenuen topo». Honela azaldu zuen Joxe Mari Iriondok bere lana: «Zaila, gogorra, eta bakarrik egina; bertsoak bildu, zabaldu, idatzi, ko-bratu... guztia egiten zuen, eta kri-

tika gogorrak jasoz gainera».

Antonio Zabala Tolosan jaio zen, 1928ko urtarrilaren 23an, eta Xabierren zendu zen, urte honetako urtarrilaren 2an. Euskal idazlea eta euskarazko herri literaturaren ikerlaria eta editorea izan zen. 1945ean sartu zen Jesusen Lagundian, eta, horri esker, Oñatin Filosofia eta Teologia ikasi zituen. Adunari piztu zitzaion bertsoarekiko zaletasuna. 1961ean, Auspoo bertsoaritzaz hedatu duen argitaletxea sortu zuen, eta 1964an, euskaltzain oso izendatu zuten.

1993an, *Biblioteca de Narrativa Popular* izeneko bilduma sortu zuen, gaztelaniaz ipuinak argitaratzeko. 2000. urtean, Tolosako seme kutun izendatu zuten. Kazetaritza alorrean ere aritu zen, besteak beste, *La Voz de España*, *Dia-*

rio del Alto Aragon eta *El Diario Vasco* egunkarietan. Hori guztia ez ezik, Antonio Zabala mendizale sutsua ere bazen.

Txato Agirre

Jose Mari Agirre Txato jeltzalea hil zen abuztuaren 10ean, Panticosan (Huesca, Espainia), mendi istripuan. Oreka galdu eta amildegi batean behera erori zen. Harri bat jo zuen buruarekin, eta han bertan hil zen. 66 urte zituen. Abuztuaren 12an hileta egin zioten Tolosako San Frantzisko parrokiak elizan.

Kutxako presidenteordeak bizi-modua Tolosan egiten zuen, nahiz eta jaiotzez Ataungoa izan. Ekonomia lizentziaduna zen, eta Juan Jose Ibarretxeren aholkulari lanetan aritu zen hura Eusko Jaurlearitzako lehendakari izan zenean. Ez zen hori izan Jaurlearitzan eduki zuen ardura bakarra. Izan ere, Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua zenean, sailburuorde karguan aritu zen Agirre.

Azken urteetan jeltzaleen eskutik egin zuen ibilbide politikoa, baina hasiera ETAn egin zuen. Bruselara ihes egin zuen 1968an. 1976an itzuli zen erbestetik, artean etakide zela. Euskadiko Ezkerrako kide egin zen 1977n. Alderdi horretan zatiketa izan zen 1991n, eta Agirre ez zuen bi aukeretako bakar bat ere hartu. Ondoren, EAJn afiliatu zen.

Tolosaldeko bigarren garbigunea

Ekainaren 5ean inauguratu zuten Tolosako San Blas auzoko garbigunea. Anoetakoek emandako lehen pausoaren ostean, eskualdean zabaldu den bigarrena da. Garbiguneak berrerrabiltzeko edo birziklartzeko etxehondakinak eta antzekoak gaika biltzeko balio du. Normalean, zabor poltsan sartzen diren eta ondoren aprobetxa daitezkeen gauzak eramaten dira. Baita lehenbailehen alde batera utzi nahi diren materialak ere. Berbitzua doakoa da, eta erabiltzaileek, hara joan, eta bertako arduradunaren argibideak jarraituz, edukiontzian sar ditzakete hondakinak.

Tolosaldeko herriek elkarlanean aurrera eramandako proiektua da. Garbigune berri honetan 578.000 inbertitu dira eta eskualdeko 28 udalerriek ordaindu dute.

1924

ECEIZA
T O L O S A

Gozotegia eta okindegia

TEILAK ETA ZIGARROT XOAK

Pablo Gorosabel, 34 • Tel.: 943-65 51 61 • San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916 • pastecelza@euskalnet.net • TOLOSA

Laskorain Ikastola

zure aukera

Tel.: 943 67 44 28
943 69 71 27
Faxa: 943 67 54 23
tolosa@ikastola.net



HAUTESKUNDEAK. Villabonan jendea botoa ematen, EAeko hauteskondeen egunean. NOELIA LATABURU

EAJ GARAILE ETA D3M BIGARREN LEGE BILTZARRERAKO BOZETAN

Europako hauteskundeetan, irregulartasunak izan arren, Iniziatiba Internazionalista taldeak lortu zuen boto gehien, Tolosaldeko eta Leitzaldeko botoak zenbatuta.

Eskualdean, legebiltzarreko hauteskundeetan, martxoaren leian, EAJ alderdia izan zen alderdirik bozkatuena. 8.198 boto lortu zituen, 2005eko hauteskundeetan baino 2.754 gutxiago. Kontuan izan behar da azken hauteskundeetan EAJ EAekin koalizioan aurkeztu zela. Azken horien boto kopuruak nabarmen egin zuen behera, eta 1.167 botorekin geratu ziren.

Bigarren indarra eskualdean

Demokrazia Hiru Milioi (D3M) taldea izan zen. Euren emandako datuen arabera, 4.784 boto jaso zituen, euren botoak balio gabetu egin zituzten. EHAK-k 2005ean lortu zituen 7.145 botoekin alderatuz, 2.361 gutxiago izan zituen. Aralar alderdiak duela lau urte baino boto gehiago jaso zituen, proportzioan igoera handiena harentzat izan zen. 1.208 boto jaso zituen, eta aurten, berriz, 2.387, hain zuzen ere 1.179 boto gehiago, kopurua bikoiztuz.

PSE-EEk ere igoera txiki bat izan zuen eskualdean, baina EAEn baino txikiagoa; 543 boto geroago jaso zituen.

Txanponaren beste aurpegian PP, EA eta EB alderdiak daude. EArentzat izan zen jaitziera handiena, eta atzetik jarraitu zioten PPK eta EBk.

Europako Hauteskundeetan, ekainaren 7an, Tolosaldeko eta Leitzaldeko botoak zenbatuta Iniziatiba Internazionalistak izan zituen boto gehien, %39,7 eskura-

tuz. Bigarren lekua lortu zuen EAJk, %26,1 botorekin, eta hirugarren lekua PSOEk, %13,4rekin. Ondoren, Aralarrek eta EAk osatu zuten koalizioak %10,1 lortu zuen, PPK %7,2 eta Ezker Batuak %1,1. Abstentzioa 2004ko hauteskundeekin alderatuta hiru puntu handitu zen, %62,56raino.

Aralar taldeko Inaki Irazabalbeitia alkizarrak Europako Legebiltzarrean dihardu, bere koalizioak eserleku bat eskuratu baitzuen. Bere koalizioko beste

alderdi batzuekin partekatuko du legealdia.

Orain bost urte egin ziren hauteskundeetako datuekin alderatuz, Iniziatiba Internazionalista (2004ko Herritarren Zerrendaren datuak hartuz) eta PSOE izan ziren, bi eskualdeak kontuan hartuta, hazi zirenak. Iniziatiba Internazionalista taldeak lehenengo postuari eutsi zion, eta PSOE alderdiak hirugarrena kendu zion Aralar-EAri. Hain justu, jaitziera nabarmenena Aralar-EAk izan zuten ia mila boto galduz. EAJk 484 boto galdu zituen, PPK 375 eta EBk 257.

Eskualdean zenbait boto zenbaita irregular eman ziren, Iniziatiba Internazionalistarekin zerikusia zutenak.

Espainiako Barne Ministerioak eman zituen behin-behineko datuen arabera, Amezketan, esaterako, Iniziatiba Internazionalistak ez zuen botorik jaso, eta POSI alderdiak 113 boto jaso zituen. Berez, boto horiek Iniziatiba Internazionalistari zegozkion.

Tolosan 63 boto gutxiago zenbaitu zizkioten Iniziatiba Internazionalistari, eta UNA (Unida Nacionalista Asturiana) alderdiari egotzi zizkioten. Antzekoa gertatu zen Villabonan. Iniziatiba Internazionalistari 78 boto gutxiago zenbaitu zizkioten, Barne Ministerioaren arabera DN (Democracia Nacional) alderdi ultraeskuindarrak jaso zituenak ziren.

EA-tik Alkarbidera

Tolosan, Andoni Iturzaeta EA alderdia utzi eta Alkarbideren lerro ideologikoari heltzea erabaki ostean, atxiki gabeko zinegotzi izatera igaro zen, eta EAko taldeari zegozkion eskubideak galdu zituen.

Bestalde, Jose Miguel Gomez EAko zinegotziak kargua utzi zuen, eta haren lekua Nerea Letamendia EAren zerrendako kide independenteak hartu zuen, Udalean egindako osoko bilkuran. Haren kargua, Turismo eta Ferien batzordeko zinegotziarena da.

Ibarrako Udalean ere, lau zinegotziek —Luis Ignacio Alonsok, Juan Ignacio Arocenak, Itziar Jaurregik eta Ion Ander Bastarricak— alderdia utzi eta sortu berri den Alkarbideko kide egitea erabaki zuten.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin elkarlanean

AURRERAPAUZO HANDIAK BERPIZTU EGITASMOAREKIN

Urkizu, Aldaba, Bedaio eta Montezkue auzoen garapena bultzatzea da horren helburua.

Urkizu auzoa suspertzeko eginkizun horretan, lehen auzo bazkaria egin zuten urriaren 11n —125 lagun inguru bildu ziren auzoaren erdigunean jarri zuten karpan—. Tolosako Udalak eta Alurtxiki elkarteak hitzarmena sinatu zuten, Urkizu eta Auzo Txikiaren garapenerako helburu zerrenda gauzatzeko.

Gaur egun Urkizun, Auzo Txikin eta Albizturko goiko aldean bizi direnak nahiz bizitakoak elkartzu ziren bazkarian. Bazkaltzarrek eta antolatzaileak oso gustura geratu ziren emaitzarekin, eta 2010ean berriro antolatuko dute.

Orduko bazkari bat baino gehiago izan zen, ekitaldia etorkizuneko asmoak eta helburuak lortzeko abiapuntu izan baitzen. Bazkaltzen hasi aurretik, Tolosako Udaleko ordezkariak eta auzokoek lankidetzara hitzarmen bat sinatu zuten. Agiriaren sinatzaile Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Pello Ezeiza Alurtxiki elkartearen lehendakaria izan ziren.

Hitzarmenean adierazitakoaren arabera, «Alurtxiki auzo elkarrearen helburua Urkizu eta Auzo Txiki bizi-lagunak antolatzeko modua egitea da, auzotarren bizikaltzea hobetzeko egin beharretan aktiboki eta arduraz parte hartzeko eta laguntzeko». Hala, elkarrekin hainbat jarduerari ari da egiten, gizarte, kirol eta kultur arloetan.

Montezkue auzoan, berriz, due-la hilabete gutxi hasi ziren arlo netan lanean. Izatez, 2008ko irailean hasi zuten Bepiztu egitasmoa Montezkue auzoan, Tolosako Udalarari, Itsas mendikoiri eta Tolomendi esker, baina orain hasi dira pauso handienak ematen.

Hala, irailean 22an, auzo batzarrera egin zuten, Bepiztu egitasmoa dela-eta osatu den ekintza



ALURTXIKI. Tolosako alkate Jokin Bildarratz eta Alurtxiki elkartearen lehendakari Pello Ezeiza, Alurtxiki elkartearen aurkezpeneko sinadura ekitaldian, urrian, Urkizu auzoan. IÑIGO TERRADILLOS

planaren lehen zirriborroa aurkezteko.

Auzotarren artean atzeman diren hutsuneak konponbideak bilatzen saiatu ziren bertan.

Landa eremuko emakumeen egoera

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunean, urriaren 15ean, estreinakoz, egun hori landa eremuan bizi diren emakumeen errealitatearen inguruan gogoeta egiteko baliatzea erabaki zuen Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak. Horretarako, *Ikus-entzunezko diagnosi* aurkeztu zuten jendarean, bai herrigunean, baita landa eremuan ere; Bedaio auzoan eta Tolosako Kultur Etxean, hain zuzen ere.

Bepiztu egitasmoaren laguntzarekin garatu zuen Berdintasun Sailak ikus-entzunezkoa. Farapi ikerketa taldea aritu zen lanean, eta landa eremuko hamabost emakumeren lekukotasunak bildu zituzten bertan.

«Beste errealitate bateko emakumeak irudikatzen dituzte. Horregatik da interesgarria lan hau, ezezagun zaigun edo espero ez dugun zerbait erakusten digutela», azaldu zuen Onintza Lasa Ber-

dintasun zinegotziak aurkezpen ekitaldian.

Urkizu eta Bedaioko gida turistikoak

Asteburu Kulturaren barruan, Bedaioko gida aurkeztu zuten Turismo Bulegoaren, Tolosako Udalaren eta Bedaioko auzotarren artean maiatzaren 29an. Bertan, Bedaioko baliabide turistikoaren berri emanen da.

Urkizukoak, berriz, egun gutxi batzuk lehenago eman zuten ezagutzera. Euskaraz eta gaztelaniaz dago prestatua, eta auzoaren kokapena, historia eta hango leku eta ezaugarri garrantzitsuenak biltzen ditu; auzoaren ikuspegia eta eraikinak azaltzen dituzten testu eta argazkiak daude, hango baserriak ere ekoiztiko produktak, baita han egin daitezkeen ibilbideak ere, esaterako. Auzo eskualdean kokatzen duen mapa ere badu gidak. Pasadizoak, bitxikeriak, gertaerak eta auzoko pertsonaia ezagunen deskribapena ere biltzen du aipatutako gidak.

Toki Inbertsiorako Funtsa

Espainiako Gobernuak sustaturiko Toki Inbertsiorako Funtsaren barruan, hainbat azpiegitura egin

edota berritu ahal izan dituzte eskualdeko herrietan. Biztanleko 178 euroko diru laguntza izan da 2009an, eta 2010ean ere laguntza horrekin jarraitzea espero dute, baina murrizketa egongo da.

Abaltzisketan, bideturteza eta erdigunea urbanizatzeko, 44.555 euroko aurrekontua izan dute, eta argiteriako linea lur azpian jartzeko, 9.248 eurokoa.

Adunan, haur parkea egiteko, 65.486 euro aurrekontua izan dute. Albizturren ur area berritzeko, berriz, 53.449 euroko aurrekontua baliatu dute. Alegian, Besistin auzorako biderako, 67.495 eurokoa, eta kiroldegiko sabaia berritzeko, 215.919 eurokoa.

Altzon, Elordi parkea berritu dute (29.422 euroko aurrekontua), udaletxetik frontoira euri urak bideratu (10.656 euro), eta Elordiko parkeko sarbidea egokitu dute (27.000 euro).

Alkizan, ur deposituaren sarea (34.670 euro) eta bideak berritu dituzte (22.319 euro).

Amezketan, ur sarea berritu eta zorua konpondu dute (168.847 euroko aurrekontua).

Anoetan auditoriuma egin dute (313.631 euro), eta Areson ikastetxe-ko kanpoaldea berritu dute

(50.972 euro). Asteasun, udaletxea zaharberri (69.780 euro), eta gizarte zerbitzuarentako egoitza osatu dute (187.708 euro).

Baliarrainen udaletxe kanpoaldea berritu dute (16.105 euro), Belauntzan baserrietara eta etxeetara joateko bidea egin (54.200 euro), eta Berastegin bideetako segurtasuna hobetu dute (177.519 euro).

Berrobren oinezkoentzako bidea egin dute Antzi-azpikotik Telleri-zaharerraino (103.892 euro), Bidania-Goiatzen landa eremuko bideak berritu (85.484 euro), eta Elduainen hilerria berritu dute (40.176 euro).

Gaztelun, erdigunean berrikuntzak egiteko, 30.088 euroko aurrekontua izan dute. Hernialden ingurumena hobetu dute landa eremuan (57.884 euro), eta Ibarrako Julian Gaiarre auzoan urbanizazioa eta azpiegiturak hobetu dituzte (756.271 euro).

Ikaztegiako haur parkea eraikitzeko, 80.530 euroko aurrekontua izan dute. Iruran Musika Eskola egokitu dute (224.000 euro), Larrauln pilotalekua eraberritu (36.804 euro), eta Leaburun ur zikinak eta euri urak jasotzeko azpiegitura berritu dute (67.963 euro).

Leitzan, haur eskolaren erreforma egin dute (70.695 euro), hainbat lan txiki egin (65.463 euro), koska duten zeharbideak egokitu (9.071 euro), Alde Zaharreko lurzorua konpondu (67.620 euro) eta udaletxearen erreformak egin dituzte (298.468 euro).

Lizartzan herriko plaza eta hilerria hobetu dituzte (107.963 euro), Orendainen kirol jarduerarako gunea egokitu (30.972 euro), eta Orexan Udalarena den antzinako etxe bat berritu dute, hainbat zerbitzu emateko (20.354 euro).

Tolosan, beste hainbat lan: Mustaden oinezkoentzako zubi berria (657.200 euro), presa berria (1.783.845 euro), Musika Eskolaren kanpoaldearen zaharberria (321.123 euro), Igeralde plazaren berritzea (305.236 euro) eta Amartz auzoaren urbanizazioa (98.560 euro).

Azkenik, Villabonan, Larrea auzoan, lur azpiko aparkalekua eta plaza egin dituzte, 1.016.775 euroko aurrekontuarekin, eta Zizurkilen Intxaur pilotalekua berritu dute 493.796 euroko aurrekontuarekin.

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

HEZIKETA ZIKLOAK - CICLOS FORMATIVOS

Goi maila

- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irodia
- Erradioterapia
- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia - Parafarmazia

Kondeko aldapa 5B • Tolosa
943673629 • www.inmakuladatulosa.com

SMG
san migel garraioak

Kale Nagusia, 14 - 2. ezk.
20271 IRURA (Gipuzkoa)
www.sanmigelgarraioak.com
info@sanmigelgarraioak.com
T. 943 691 418
F. 943 696 483
M. 669 871 955

GERNIKAN USTEZ EMAZTEA ERAIL ZUEN GIZONA ESPETXEAN

Martxoaren 23an, hilda aurkitu zuten 44 urteko Izaskun Jimenez emakume tolosarra; hark hainbat urte zeramatzan Bizkaian bitzitzen.

Martxoaren 23ko gauean, 48 urteko gizon batek ustez bere emaztea erail eta alaba zauritu zituen Gernika-Lumon (Bizkaia). Hildako emakumeak, Izaskun Jimenezek, 44 urte zituen, eta larri zauritutako alabak, berriz, 19. Gizonezkoa etxe inguruan atxilotu zuen Ertzaintzak, hilketa burutzeko erabilitako labana soinean zuela. Epaileak egun bat geroago, arratsaldean eman zuen gizonezkoa espetxeratzeko agindua, eta Basauriko preso degira eraman zuten (Bizkaia). Psikiatra batek azterketa medikua egin zion bertan.

Hildako emakumearen familia Lodosakoa zen, baina emakumea tolosarra zen, eta urteak zeramatzan Busturialdean; 2007. urtean joan zen emakumea Gernika-Lumora.

Bizilagun batek ohartarazita joan zen Ertzaintza Gernika erdiguneko Barrekale kaleko etxebizitzara, eta horrek, gainera, hilketa 11 urteko semearen eta 19 urteko alabaren aurrean egin zuela esan zion Ertzaintzari.

Larri zauritutako alaba Galda-kaoko erietxera eraman behar izan zuten, eta Izaskun Jimenezen gorpua, berriz, Bilboko Auzitegiko Patologiako Zerbitzura.

Era berean, Ertzaintzak jakinarazi zuen emakumeak ez zuela inoiz tratatu txarren aurkako salaketarik egin.

Egun batzuk geroago, Tolosan, hainbat lagunek salatu egin zuten



ELKARRETARATZEA. Hainbat jende elkartu zen San Frantzisko elizaren aurrealdean, Izaskun Jimenezen heriotza salatzeko. ESTI EZEIZA



SUTEA. Sevendenea egoitzak, etorkin adingabeen urgentziako zentroak, su hartu zuen otsailaren 16an. IÑIGO TERRADILLOS

indarkeria matxistaren ondorioz Izaskun Jimenez erail izana. Baita bere 19 urteko alaba larri zauritzea ere. Salaketa ekitaldi horrekin batera, elkartasuna ere adierazi nahi izan zieten Jimenezen familiakoei.

Sutea Sevendenea adingabeen zentroan

Sevendenea egoitzak, etorkin adingabeen urgentziako zentroak, su hartu zuen otsailaren 16an. Adingabeak, hezitzaileak eta segurtasun langileak zeuden egoitzaren barruan sutea gertatu zen unean, baina ez zen inor zauritu. Eraikinaren goiko pisuan nahiz teilatuan kalte material handiak izan ziren.

12:40 zirenean piztu zen sutea eraikinaren goiko pisuan, zentroaren logelak zeuden lekuan. Hain zuzen ere, bi logelatan sortu zen sua, eta une horretan adingabeak, hezitzaileak eta segurtasun langileak zeuden etxearen barruan. Segituan atera ziren kanpora, eta, ondorioz, ez zen inor zauritu. Suhiltzaileak sutea piztu eta minutu gutxira bertaratu ziren, eta ordubete ingururako itzaltzea lortu zuten. Goiko solairua eta teila-tua kaltetu ziren gehien.

Ertzaintzak ondoren ikerketa zabaldu zuen, ezbeharrak nola gertatu zen argitzeko asmoz; «horretarako, etxearen barruan sua piztu zen unean zeuden guztiak deklaratu behar izan zuten, adingabe, hezitzaile eta segurtasun langileek».

Sevendenea etorkin adingabeen zentroa ixtear zegoen garai horretan, eta geratzen ziren 32 adingabeek egun horretan bertan utzi behar zuten zentroa. Gipuzkoako Foru Aldundiak adingabeen harrera zerbitzua berriz antolatzea erabaki zuen, eta Tolosako zentroa ixtea adostu zuten. Gipuzkoako beste hainbat egokitu baitzituzten urgentziako harrera emateko.

Otsailaren 16an, geratzen ziren adingabeak eraman ostean, itxi zuten Sevendenea zentroa.

GARIKANO

ZAPATA DENDA

Letxu kalea, 6 • ☎ 943-67 44 49 • TOLOSA
Sarrlegi plaza, 7 • ☎ 943-42 34 69 • DONOSTIA

LAB
langile abertzaleen hitzordetza

langile abertzaleen batzordeak

Euskal Herrian
bizi eta lan
bertan erabaki

Gorosabel 29,1. • Tel.: 943-67 00 26 • 20400 TOLOSA



SALAKETA. Manifestazioa egin zuten herrian, Maite Aranalde ibartarra jaioterrira ailegatzen izandako istiluak salatzen. Irudian, manifestazioa deitzeko emandako prentsaurrekoa. ASIER IMAZ

ESPETXE KONTUAK NAGUSI

Espetxe kontuak nagusitu dira eskualdean azken urtean. Irati Mujika amezketarraren etxeratzearekin hasi zen urtea, baina bukatu, Peio Olano lizartzarraren sei urteko espetxearekin, «erbesteratzearekin» eta «kargu publikorik» ezin hartzeko eskaerekin amaitu da. Tartean beste hainbat istorio ere izan da; Manex Castrorena, Maite Arandalderena, Mikel Garmendiarena eta azken sarekada. Izan ere, azaroaren 24ko goizaldean Aritz Lopez, Irati Mujika eta Mikel Aiestaran gazteak atxilotu zituen Poliziak

Urtarrilean utzi zuten aske, 10.000 euroko bermea ordainduta, Amezketako Irati Mujika gaztea. Hiru hilabete eta erdi eman zituen kartzelan, beste bost gazterekin batera atxilotu ostean. Segi gazte erakundearekin lotu zuten, eta kale borrokako ekintzak leporatu zizkion Espainiako Auzitegi Nazionalak.

Manex Castro gazte villabonatarra ere Ertzaintzak torturatu izana salatzen zuten, martxoan atxilotu eta gero. Torturen bidez bi ekintza

onartzera behartu zutela salatu zuten, Orduko Eusko Jaurlaritzako bozeramaile, Miren Azkaratek esan zuten «bere garaian onartutako protokoloa» aplikatu zuela Ertzaintzak, eta Auzitegi Nazionalak gaineratu zuten Castoren salaketa ez zela «sinesgarria».

Castro gaztea «ETArekin harremana» zuelakoan atxilotu zuten Ertzaintzak, eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak esan zuenez, bortizkeria erabiliz sartu ziren haren bila taberna batera. Ertzaintzako iturrien arabera, lehergailuak egiteko materiala

aurkitu zuten gaztearen familieren etxean, Hernani. Castro ez zen izan atxilotu bakarra Villabonan, Mikel Garmendia ere garai bertuan atxilotu baitzuten. ETArri laguntza leporatu zioten, eta inkomunikatuta eduki zuten.

Ongietorriak

Tolosan, maiatz aldean, ongietorria egin zioten Jabi Gordori. 1988an atxilotu zuten Gordo, ETAko kide izatea leporatuta, eta hilabete batzuk espetxean pasatu ondoren, kaleratu egin zuten, epaiketa egin bitartean. Gero Mexikora

alde egin zuten, eta han atxilotu zuten.

Tolosan, hala ere, bada besterik. Lizardi elkarteak hamabost hilabete baino gehiago eman dituzte hileko lehen ostegunean elkarretaratzeak egiten, Peio Odriozola kaleratzea eskatzeko.

Odriozolak kalean behar zuten jada; izan ere, hogeituroko kartzela zigorra bete ostean, 2008ko uztailaren 2az geroztik behar zuten libre. Baina zigorra hamar urtez luzatu diote, eta horregatik, Lizardikoek, elkarretaratzeekin batera pankarta bat ere jarri zuten elkartearen

aurraldean, Odriozolak kalean behar zuten egunarekin. Baina uztailaren 18an Ertzaintzak pankarta kentzeko agindua eman zien, «biktimak irain zitzakeelako». Elkarteko kideek auzitarajo dute, eta helegitea jarri dute pankarta kentzeko erabakiaren aurka. «Guk uztailaren 2tik kalean beharko lukeela eskatzen baitugu soilik», argitu zuten.

Abuztuaren kontu ugari izan ziren Ibarra aldean. Hilabete bukaeran Maite Aranalde ibartarra etxera itzuli zen sei urteren ostean, eta 12.000 euroko bermea ordainduta. Herrian harrera egin nahi izan zioten, baina Ertzaintzak haren osaba atxilotu zuten, eta tentsio uneak izan ziren. Aske geratu eta gero Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epaileak bilatze eta atxilotze agindua eman zuten, ez omen zelako epaiketara agertu. Maite Aranalde 2005ean atxilotu zuten Montpellierren (Okzitania) ETArekin harremana izateko leporatuta.

Aurten ere albiste izan da Lizartza. Kotsuelo Agirrebarena 61 urteko lizartzarra Martuteneko espetxean sartu zuten irailen. Lau urteko kartzela zigorra jarri diote, Begoña Pereira PPko zinegotziari makilarekin jotzeko keinua egiteagatik.

Peio Olanoren kasua ere aipatzekoa da: Regina Otaola, Lizartzako PP alderdiko alkateak, lizartzarra «erbesteratze eta espexeratzeko» eskatu zuten urrian. Gainera, epaitegi goreneko fiskalak Olanori ezarritako bi urteko espetxe zigorra sei urtera luzatzea eskatu zuten alkateak; baita «erbesteratzea» eta kargu publikorik ez hartzea ere.

Horiez gain, atxiloteta gehiago izan dira eskualdean: azaroaren 24an, goizaldean, 34 gazte atxilotu zituzten, Segiko partaide izateagatik. Horietako 31 espetxeratu egin dituzte, Espainiako Auzitegi Nazionalako Fernando Grande Marlaska epaileak aginduta. Poliziak ETArekin lotzen du Segi, eta, haiek esandakoaren arabera, taldea «berrosatzen» ari zen. Atxilotu eta espexeratuen artean daude Villabonako Mikel Aiestaran, Remi Aiestaranen anaia; Tolosako Aritz Lopez; eta Amezketako Irati Mujika. Atxilotuek salatu zuten torturatu egin zitezela.

ARIBE ERREMENTARIAK S.L.
Zaharberritzea...
Osabar induslagunea, 6 B • TOLOSA • Tel.: 943 67 43 50

SEGUROS BILBAO **Zumardi**
aholkularitza integrala
San Joan festa zoriontsuak opa dizkizu
Laskurain, 8 behe • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

TOLOMENDI
TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEA
Tel.: 943-65 50 97
tolomendi@euskalnet.net
www.tolomendi.net

“Xirimiri”
Txokolategia
urte berri on!
Errementari kalea, 40
20400 Tolosa
Telef. 943 67 52 23

KLISK
Argazkilaria
Argazki eta zerbitzu digitalak
azken berrikuntzak
Bideotik DVDra
San Frantzisko, 6
TOLOSA
☎ 943-65 80 39



PASABAN. Edurne Pasabani bi zortzimilako falta zaizkio hamalauak osatzeko. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

EDURNE PASABANEK HAMABIGARREN ZORTZIMILAKOA IGOTZEA LORTU DU

Hamalau zortzimilakoak osatzeko erronkan, hamabigarren gailurra igo zuen Edurne Pasaban mendizale tolosarrak uztailaren 18an. Kangchenjungako gailurra (8.586 metro) zapaltzeko unean, Asier Izagirre tolosarra izan zen harekin.

Euskal Herrian 13:15 zirenean jakinarazi zuen Pasabanean gailurrera heldu zirela, bere webgunean bertan. Horrenbestez, Annapurna (8.091 metro) eta Shisha Pangma (8.031 metro) falta zaizkio Edurne Pasaban tolosarrari 14 zortzimilakoak igotzeko. Asier Izagirreentzat, laugarren zortzimilakoa izan zen; Broad Peak, Manaslu eta Dhaulagiri igota baitzituen aurretik.

Garaierari dagokionez, munduko hirugarren mendia da Kangchenjunga (8.586 metro), eta Nepal eta India artean dago. Azken espe-

dizioan, *Al filo de lo imposible* Espainiako telebista saioko kideekin izan ziren tolosarrak. Juanito Oiarzabalek, Ferran Latorrek eta Alex Txikonek osatu zuten taldea. Han ziren Alberto Zerain, Koke Lasa, Julien Reketa, Patxi Goñi, Oscar Cadiach eta Juanjo Garra ere.

Espedizioak jaisteari ekin zionean, une larriak pasatu zituen Edurne Pasabanean. Azkenean, espedizio-kideek lagunduta jaitsi behar izan zuten.

Marka jartzeko ahalegin horretan, urriaren 14an etorri zen atzerapausoa, Edurne Pasaban ezin

izan baitzen Shisha Pagmaren gailurrera igo, haize bortitza zela eta.

Tolosa-Getaria traineruak markak hautsi ditu

Denboraldi borobila egin dute Tolosaldeko eta Getariako neskek arraunean. Irailaren 13an, hirugarren gelditu ziren Kontxako Banderan. Lehen postuan Rias Baixas sailkatu zen, eta bigarren Astillero.

Abuztuaren 23an, Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuten, eta uztailan Euskotren Ligako estropada, Zarautzen. Azken bandera hori beretan modu ikusgarrian lortu zu-

ten Tolosa-Getariako arraunlariak; izan ere, bi jardunaldira jokatuz, eta lehenengoa Astillero irabazi zuen, eskualdekoei 4 segundo ateraz. Bigarren jardunaldia Tolosa-Getariak irabazi zuen hurrengo egunean, bost segundoko aldea lortuz. Hilabete oparoari amaiera emateko, uztailaren 31n, Euskal Herriko Txapelketa irabazi zuten Hondarribian.

Iñigo Sarasola billabonatarra Realean

Defentsan ezker hegalean aritzen da Iñigo Sarasola (Villabona, 1987). Arratzainen hasi zuen futbol ibilbidea, Villabona Kirol Elkartearen. Benjaminetan eta kimuetan izan zen herriko taldean. Haurren taldean sartu zen Realean, proba batzuk egin eta gero, eta bertan izan zen kadeteetan, gazteetan eta Sansean. Aurten, 2009-2010eko denboraldian, lehenengo taldean hasi da.

Miguel Otegi Europako Formula Renaulten

Hamazazpi urteko Miguel Otegi asteasuarrak nazioartean lehiatzen da auto lasterketan. 2009an Europako Formula Renault Txapelketa lehiatu zen. Afizio moduan hasi zena egunen batean ofizio bilaketzea nahiko luke, 1 Formulako pilotua izateko.

Transportes Lakunza taldea mailaz igo da

Villabonako Transportes Lakunza aretoko futbol taldeak igoera eskuratu zuen, eta 2009-2010eko denboraldian Espainiako Nacional B mailan ari da. Maila horretan eskualdeko beste talde bat ere aritzen da: Tolosako Laskorain, hain zuzen.

Mendizabal eta Arozena, txapeldunak

Kuban jokatu zuten azkeneko Palleta Gomako Munduko Kopa, eta bertan, Maider Mendizabal anoetarra eta Nagore Arozena lizartarra izan ziren txapeldunak, Espainiako selekzioarekin. 30-21 irabazi zituen Frantziako selekzio bikoite gogorrari. Finala oso luzea izan zen, argindarra behin baino gehiagotan joan zelako, batez ere. Eskualdekoei beren onena eman zuten, eta Kopa eskuratu. Taldean Itxaso Urkizu berastegiarrak ere

parte hartu zuen, ordeko moduan.

Maider Mendizabalek bi sari garrantzitsu lortu zituen: Espainiako Kiroletako Goi Kontseiluak kirolmerituaren brontzezko domina eman zion, eta Espainiako Pilota Federazioak, berriz, 2007-2008ko emakume pilotari onenaren saria. Kontuan hartu beharra dago Mendizabalek, nagusi mailan, Munduko Txapelketa eta Kopak batuta, urrezko lau domina, zilarrezko bi eta brontzezko bi irabazi dituela.

Kubako Munduko Kopan Andoni Lizaso eta David Vinuesa xarelari irururrek, ordeko moduan, zilarrezko domina lortu zuten.

Iker Hernandez pultsularia Munduko Txapelketa

Iker Hernandez pultsulari zizurkildarra 17 urte azpiko Munduko Txapelketa izan zen Thailandian, eta 25. egin zuen 62 kiloko mailan. Antonio Climet Trofeoa ere eskuratu zuen Hernandezek. Aipatzekoa da Danena-Olaederra taldea, Espainiako Klub Txapelketa bigarren eta bosgarren postua lortu baitzituen. Bestalde, 2009an, Batis Kortajarena Danena-Olaederrako prestatzailea Espainiako selekzioaren hautatzaile izendatu zuten.

Patxi Urizarrentzat berri ere denboraldi ona

Patxi Urizar-ek (Villabona, 1974) denboraldi ona egin du 2009an. Hiru urtez jarraian Euskadiko txapelduna izan zen distantzia laburreko duatloian, Euskal Herriko zirkuituan hirugarren izan bada ere. Gainera, distantzia luzeko Euskadiko txapelduna izan zen, baita Gipuzkoako distantzia laburreko txapelduna ere. Frantziako Distantzia Luzeko Duatlo Txapelketa baliagarria den Val D'Araneko duatloian berriro laugarren izan zen.

Otaegi, Bigarren Mailako aizkolaria txapelduna

Joseba Otaegi zizurkildarrak irabazi zuen Bigarren Mailako Euskadiko Aizkolaria Txapelketa, Arbizun (Nafarroa). Lehen garaipena du maila horretan, eta Jose Angel Zubiaga arabarrari 20 segundoko aldea aterata nagusitu zen. Beraz, 2009an Lehenengo Mailan arituko da.

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

samaniego
Telefona: 943651063
Webgunea: www.samaniego-tolosa.com
Posta elektronikoa: 012244aa@hezakuntza.net

- HAUR HEZKUNTZA (2 URTEK HASITA)
- LEHEN HEZKUNTZA

07:30etik aurrera
Hour txokoa

ORIXE TOLOSA
Telefona: 943651387
Webgunea: www.orixe.net

Posta elektronikoa: 012980aa@hezakuntza.net

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
- BATXILERGOAK

D EREdua-KALITATEZKO IRAKASKUNTZA
EUSKARA BIZI, EUSKARAZ BIZI

abertzaletasuna
Zure goginetz bizi

EAN



BATZAR NAGUSIETAN. Urrian, heriotza zigorraren aurkako irakurketa instituzionala egin zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietan —ezkerrean—. Pako Larrañaga, Madrilgo Barajas aireportura heldu zenean. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA - EFE**

PAKO LARRAÑAGA ESPAINIARATU DUTE

Zigorra Espainiako espetxe sisteman betetzen hasi da; Martutenera eramateko eskatu du haren abokatuak.

Martxoan onartu zuten Filipinetako Gobernuak Pako Larrañaga preso alegiarra Espainiaratzea. Pako Larrañaga 2004. urtean kondenatu zuten heriotzara, 1997. urtean ustez egindako bi bahiketa eta eraiketa egotzita.

Errugabea dela adierazi du beti Larrañagak, gertaera latz haietatik 600 kilometrora zegoela argudiatu. Gloria Macapagal Filipinetako presidentek heriotza zigorra baliogabetu zuen 2006. urteko ekainean, eta lau hilabete geroago, erabaki horrek Larrañaga heriotza korridoretik libratzeko balio izan zuen.

Urrian heldu zen Espainiara Larrañaga; urriaren 7an bertan, Espainiako Auzitegi Nazionalean izan zen Larrañaga, bere kasua azter zezaten. Javier Viada haren abokatuak jakinarazi zuenez, Espainiako espetxe sisteman betetzen hasi da jadanik espetxealdia, eta aurki Martuteneko espetxera (Donostia) eramango dute. «Guk eskaera egin dugu, eta orain espetxe erakundeen esku dago lekuz aldatuko duten».

Larrañagaren familia oso pozik dago, eta aitak azaldu zuenez, semeak «poza erakusten duen begirada berreskuratu du». Viadak berak ere gaineratu zuen Larrañaga «oso pozik» dagoela.

Dagoeneko hamabi urtez izan da Filipinetan preso Larrañaga. Haren auziak «irteera egoki bat izateko bide onean» dagoela gehitu du Viada abokatuak. Larrañagari ezingo zaio epaiketa berriro ere egin. «Hori ezinezkoa da. Filipinetakoa epai irmoa da, eta Espainian ezin da epaiketa hori

berriro ere egin», jakinarazi du abokatuak.

Batzar Nagusiak, «heriotza zigorraren aurka»

Gipuzkoako Batzar Nagusiek «heriotza zigorra arbuizatzen» dute. Horretarako, testu instituzional bat aurkeztu zuten, haien ustez «zigortzeko era hori diskriminazioa eta ankerra delako, ezin delako atzera bota, eta giza eskubideen aurka doalako».

Adierazpenean, Larrañagaren familia gogoan izan dute Batzar Nagusiak: «Adorea eta kementa helarazten dizkio borroka mingarri eta luzearen bukaerako aro honean, biziki borrokatu baitira Pako Larrañaga hil ez dezaten eta Espainiara bidal dezaten lortzeko. Sinietsita gaude Pako itzultzeko eguna gertu dagoela».

Pako Larrañagaren osaba izan zen Gipuzkoako Batzar Nagusietako ekitaldi horretan.

Larrañagaren familiak une oro defendatu du haren errugabetasuna, eta salatu du epaiketa ez zela bidezko izan. Hasiera batean, heriotza zigorra ezarri zioten, bi ahizpa bortxatu eta hiltzeagatik. Ondoren, heriotza zigorraren ordez, bizi guztirako espetxe zigorra ezarri zioten. Filipinen eta Espainiaren arteko hitzarmenaren ondorioz, Larrañagak Espainiako espetxe sisteman beteko du zigorra.

Auziaren kronologia

1997-07-16 • Chiong ahizpak desagertuak zirela salatu zuten.

1997-09-16 • Pako Larrañaga atxilotu zuten, eraiketa egotzita.

1999-05-05 • Larrañaga betiko kartzela zigorrera kondenatu zuten, beste inmutatuekin batera.

1999-10-07 • Kartzela zigorra ezarri zion Cebuko epailea hilda aurkitu

zuten, hotel batean, buruan tiro bat zuela.

2004-02-03 • Auzitegi Gorenak heriotza zigorra ezarri zion Larrañagari. Ondorioz, familiak laguntza eskatu zuten Euskal Herrian eta Espainian.

2004-02-17 • Larrañaga New Bilbid espetxean sartu zuten. Han, heriotzara kondenatuak dauden pabiloian sartu zuten.

2005-04-28 • Europako Parlamentuak Larrañagaren kasua berriaztertzea eskatu zion Filipinei.

2005-05-15 • Larrañagak laguntza eskatu zion Europako Batasunari.

2006-06 • Gloria Pacapagal Filipinetako presidentek heriotza zigorra baliogabetu zuen Filipinetan. Ondorioz, Larrañaga heriotzaren korridoretik atera zen.

2006-08-03 • NBERen Giza Eskubideen Batzordeak adierazi zuen Larrañagaren epaiketa ez zela bidezkoa izan, eta Filipinei 90 egun eman zizkien «konponbide eraginkor bat» bilatu zezaten.

2008-05-18 • Espainiako eta Filipinetako gobernuak presoaren lekualdatzeari buruzko ituna sinatu zuten.

2009-03-24 • Filipinek presoaren Espainiaratzea baimendu zuten.

2009-05-26 • Larrañaga sendiak falta ziren bi tramiteak burutu zituen: biktimen gurasoei 12.500 euro ordaindu eta zigor egiaztagiria entregatu zuten.

2009-09-06 • Larrañagaren lekualdatzea oztopatzeko auzitan jardungo zela esan zuen Chiong familiak.

2009-09-25 • Filipinetako Espainiaren Kontsulatu Orokorrek zuzenean esan zion Larrañagari bere lekualdatzea baimendua izan zela.

2009-10-06 • Larrañaga Filipinetatik atera eta Madrilera iritsi zen.

2009-10-07 • Espainiako Auzitegi Nazionalek pasatu zuen Larrañaga.

Calcinor
SABIA NATURALEA

Egileor Auzoa 101
20268 Alizo
Tel.: 943-65 32 43
Faxa: 943-65 48 95

ENPRESAK:
AIZKIBEL, S.A.
CALCINOR, S.A.
CALERA DE ALZO, S.L.
MORTEROS CALHIDRO, S.L.
CANTERAS DE TOLOSA, S.A.
REFRACTARIOS KELSEN, S.A.

WWW.CALCINOR.COM
calcinor@calcinor.com

GRUPO BERDIN
www.berdin.com

BULEGO ETA BILTEGI NAGUSIAK

Atapeko Enpresa, 3-27 Ind. Martutenea
20014 DONOSTIA
Tel.: 943-47 11 19
Faxa: 900-50 18 01
www.berdin.com

Balazartek, 16
20011 Donostia
Tel.: 943-45 74 55
Faxa: 943-45 20 71
balazartek@berdin.com

SUKURTSALAK

BERDIN ALAVA, S.L.
Olasoak, 3
Tel.: 943-76 12 90
Faxa: 900-50 18 02
www.berdin.com

San Andres auzoa, 10-D
Tel.: 943-79 93 00
Faxa: 900-50 18 02
www.berdin.com

Sorrio Tomaxen Udaldea, 1
Tel.: 945-24 27 00
Faxa: 900-72 04 49
www.berdin.com

LYNTEL NORTE, S.L.
Yegoa Lapalza, P3 P.
Tel.: 944-74 50 24
Faxa: 900-50 18 04
www.berdin.com

Lepo de bigoyen, 12
Tel.: 943-61 49 76
Faxa: 943-61 41 79
www.berdin.com

PLAYUNDI, S.A.
Ibañeta, 3. lokala
30301-IBEN (Gruñeda)
Tel.: 943-61 49 76
Faxa: 943-61 41 79
www.berdin.com

BERDIN RIOJA, S.L.
Yagüe Jenerala, 34.
Tel.: 941-20 00 19
Faxa: 900-72 04 52
www.berdin.com



JAIA. Alegia herria goitik behera eraldatu zuten Garai Bateko Alegia jaietan. EDUARRAYET

Laburrak

Asteroko azokak berreskuratuz

ALEGIA ETA IBARRA › Ibarrako Udalak garai batean egiten zen merkata berreskuratuz zuen ekainaren 18an. Azoka ostegunero izaten da orain, 08:00etatik 13:00etara. Hainbat produktu erosten ahal dira azokan ipintzen dituzten 18 erakusmahaietan. Alegian ere, asteazkeneroko azoka berreskuratuz dute Larraitz auzoan. Martxoan egin zuten lehenengoa, eta, fruta eta barazkiez gain, beste hainbat produktu eros daitezke.

'BertsolarHITZA' txapela Alegiarentzat

ALEGIA › Gipuzkoako Bertsozale Elkartek eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkariak Tolosaldeko eta Leitzaldeko BertsolarHITZA Desafioa antolatu zuten. Ibarra eta Alegiako bertso eskolek eta Altzoko Elordi elkarteak kideek osaturiko taldeek parte hartu zuten. Apirilaren 4an jokatu zen finala, Ibarra Gaztetxean, Alegia eta Altzoren artean, eta alegiarrek irabazi zuten.

Enirio-Aralar Mankomunitatea

AMEZKETA › Sei hiru urte egin zuten atzera azaroaren 14an, Enirio-Aralar Mankomunitatea osatzen duten Tolosaldeko eta Goierriko 15 udalerriek. Garai hartan, Gipuzkoako Aralarko basoen bateratze sindurua egin zuten Ordizian, eta azaroaren 14an gauza bera egin zuten egungo alkateek. Ekitaldiak San Martinen izan zuten jarraipena. Guillermo Olmoren Atari eskultura inaguratu zuten han.

Euskararen alde Korrika

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA › Ongi etorri lelopean, Leitzara eta Aresora iritsi zen Korrika martxoaren 28an, eta Tolosaldean, berri, apirilaren 2an sartu zen. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza-k bat egin zuten ekimenarekin, eta Tolosan hartu zuen lekukoa.

ALEGIA ORAIN DELA EHUN URTE

Duela mende bat inguruko lanbideak eta bizimodua ikusteko parada izan zen ekainean, Garai Bateko Alegia jaiaren bitartez.

Alegian jai bitxi bezain erakargarria izan zuten ekainean: Garai Bateko Alegia, Kultur Batzordeak antolatua. Hilabete askotan antolakuntzak egindako lanak emaitza paregabea izan zuen. Helburua, hauxe: herrian garai batean nola bizi ziren ikustea.

Kalejira, lanbide bereziak, ezkonberriak, bazkaria eta erromeria izan ziren, besteak beste. Jaia aurrera eramateko, ezinbestekoa izan zen herritar askoren laguntza eta parte-hartzea.

Herritarrez gain, herriko hainbat talde ere aritu ziren: Dantza Taldea, Txintxarri abesbatza, Loatzo musika eskola, Guraso Elkarteak kideak...

Jende ugari parte hartu zuen

Beraz, herritarrek lortu zuten Alegia iraganera eramatea. Espero baino jende gehiagok parte hartu zuen, modu batera edo bestera. Bazkarian, 300 lagun inguru elkartu ziren. Zeruari begira zeuden alegiarrak, eguraldi nahasia izango zela baitzegoen iragarrita, baina,

azkenean, lainotuta baina nahiko atsegin esnatu zen eguna.

Kultura Batzordeko kideak pozik geratu ziren: «Herritarren festa izan delako batez ere, erabateko protagonistak herritarrek izan direlako». Jendea «ilusioz beteta» atera zen kalera. «Jende askok etxeko armairuak astindu ditu; herritar gehienak garai batean bezala jantzita ikusi ditugu; gustura eta arreta handiz aritu dira den-dena prestatzen. Traste eta ibilgailu zaharrez josi dugu herria. Egindako lana eta ahalegina sekulakoa izan da».

Inor ahaztu gabe, denak zoriondu nahi izan zituzten Kultur Batzordeko kideek: «Musikari guztiak, bertsolariak, abesbatza, dantza taldekoak, Txintxarrikerako lagunak, ezkonberriak, kalean harantz-honantz ibili diren pertsonaia guztiak, postuak jarri dituztenak, ume jolasez arduratu diren gurasoak, 300 lagunentzat herri bazkaria prestatzeko sukalde lanetan aritu direnak, erromeria berandu arte luzatu duten horiek, inguruko herrietatik eskua botatzera etorritakoak... Askok izan dira».



Aliprox

Alegi

San Juan 44 • Tel.: 943 651 598

ALEGI - Gipuzkoa



HITZA eta BERRIA

Tel.: 943 65 30 16

Tel.: 943 65 10 87

Faxa: 943 65 48 15

alegia@



PARKEAK. Udalak udalerriko hamar parkeak berritzea erabaki du, eta lehena San Bartolome plazakoa izan da. **REBEKA CALVO**

HERRIA HOBETZEKO LANAK

Ibarrako Udalak lan ugari abiarazi zituen «herritarren bizi kalitatea hobetzeko». Herritarrentzat, hala ere, Tolosan gertatzen den bezala, bilgailuko obrak dira jasangaitzenak; Zumardi Handia itxita dago oraindik, eta San Inazio auzoan zein erreka ertz osoan makinak eta langileak dira nagusi.

Ibarran ere bilgailuko obrak egiten ari dira urte hasieratik. Otsail partean hasi ziren, eta, hori dela-eta, lehenik eta behin, Euskal Herria kaleko bideetako bat itxi

zuten. San Inazio auzoan hasi ziren lanean ondoren, eta handik erreka ertz guztira zabaldu zituzten lanak. Obrak UTE Benta Aundi enpresari adjudikatu zituzten Udalak.

Bilgailuko obrekin batera, dena den, obra gehiago ere izan dira herrian. Apirilean argiztapenean aurrezteko neurriak adostu zituen Udalak. Urtean 25.000 euro aurrezti nahi zituzten udal arduradunek horrela, eta baita 112 tona CO2 gutxiago isuri ere. Helburu hori bete ahal izateko, Aranzadi elkar-tearen eta Energiaren Euskal Erakundearen laguntzarekin diseinatu zuten plana. Argindarra murrizteko «fluxu erreduktoreen instalazioa» egin zuten. Horri

esker, «eguneko zenbait orduetan argiaren potentzia gutxitu» egin zuten.

Argindarra murriztearekin batera, Udalak etxeetarako sarbideak hobetzeko erabakia ere hartu zuen. Ibarrako alkate Txelo Romeok esan zuenaren arabera, «udalerriko bizilagunen kontsultak jaso dira, euren blokeetan errazago ibili ahal izateko obrak egiteko asmoarekin, eta ez zegoen kontsulta horiek erantzungo lituzkeen arautegirik». Ordenantza

hori onartuta, «ibartarren artean nahiko hedatua zegoen eskaera bati irtenbidea» eman nahi izan zion Udalak, eta baita «udalerriko bizilagun guztiek euren etxebizitzetara arazorik gabe iritsi ahal izateko duten eskubidea» bermatu ere.

Ludoteka berria

Era berean, ludoteka berria egiteko 110.000 euro bideratzea ere adostu zuten maiatzean. Diru horrekin, Ibai Gaineke ludoteka lekuz aldatu zuten, eta Azkue auzoan Udalak dituen lokal batzuetara eraman.

Erabaki horren bitartez, Udalak eskaintzen duen zerbitzua nabarmen hobetu nahi zuen: «Udal zerbitzu hau oso onartuta dago ibartarren artean, eta asko erabiltzen da. Horrek arazoak eragiten ditu zenbait lekutan».

Ludoteka berria handiagoa da, 115 metro koadro baititu, eta orain, espazio horretan erabiltzaileen beharrei erantzuna emango dien «hornidura modernoa» du.

Egialde bideko lanak ere egin zituen Udalak; bidea oinezkoentzat egokitu zuten, bertan bizi direnek azken urteetan hala egiteko eskatu dute eta.

Mugikortasun Plana

Baina, beharbada, Mugikortasun Iraunkorraren Plana izan da obra guztietatik deigarriena. Bitaka enpresari eskatu zitzaion, eta hark planaren zirriborroa egin zuen; horretarako, hainbat astetan galdeketak egin eta herria nola zegoen begiratzen ibili ziren, eta gero Udalarri helarazi zion plana. Agintariak plana aztertzen ari dira egun, proposatutako neurrietatik zein abiaraziko dituzten erabakitzeko.

Dena den, Mugikortasun Planean aipatzen ez den neurri bat ere iragarri zuen Udalak ekainean: doako TAO sistema jartzea. Sistema horrekin, autoak txandakatzeko bultzatu nahi dute, toki bakoitzean auto batek baino gehiagok aparkatu dezaten. Hala ere, ezker abertzaleak erabaki hori gaitzetsi zuen, haren ustez «leku batzuetako arazoa beste leku batzuetara pasako delako».

Bukatzeko, herriko parkeak hobetzeko erabakia ere hartu zuen Udalak. Lehendabizikoa plazakoa izan zen, San Bartolome parkea, eta urriari hasi ziren eraberritzeko lanekin. 58.620 euro bideratu zituzten parkea hobetzeko, eta datozen hilabeteetan herriko beste bederatzi parkeak ere berrituko dituzte.



Mahala baserria
90491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943-67 34 99
Tel. Mug.: 689-80 56 33



FESTA. Berrobiko San Andres eskolako haurrak, eskola txikien festa antolatzen –ezkerrean–, eta Alurr dantza taldearen *Sua* ikuskizuna. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

KULTURAK ARRASTOA UTZI DU

Ekitaldi eta gertaera ugari izan dira Ibarra aldean azken hilabeteetan: XVII. mendeko garbitegia suntsitu zuten Ibarra, eskola txikien festa egin zuten Berrobin, Berastegiko Udalak kultur ondarearen izendapena jaso dezakeela jakin zuen...

Ekainean, Berrobiko eskola txikien festan, «jendetza izugarria» bildu zen. Datorren urtean Al-zoko eskolak izango du jaia antolatzeko ardura, baina orduko Berrobikoan aholkuak jasotzeko aukera ere izango du. San Andres eskolako irakasle, guraso eta ikasleak gustura geratu ziren jaiarekin.

Alurr taldearen 'Sua'

Ibarra ere izan da kultura arloko gertakaririk: Alurr dantza taldeak *Sua* bere azken lana estreinatu

zuen. Lehen emanaldia Tolosako Leidor aretoan eskaini zuten, eta, oso arrakastatsua izan zen arren, bigarren emanaldia izan zen kuttunena, etxean, Ibarra izan zena. *Sua* ikuskizuna Lapurdin kokatua dago; jauntxoan eta herriaren arteko borroka azaltzen du koreografiaren bidez, eta garaiko emakumeen jakituria ere nabarmentzen du.

Garbitegia

Bestelako albisterik ere izan da Ibarra. Izan ere, bilgailuko obrak hasi eta berehala, bertako langile-

ek XVII. mendeko garbitegia suntsitu zuten. Emeterio Arrese parkearen parean zegoen, eta Aranzadi, 2004. urtean egindako txosten batean, etnografia ondare horren balio paregabea nabarmendu zuen.

Berastegiko udaletxea

Berastegiri dagokionez, urrian udaletxea kultur ondarearen monumentu bihurtu daitekeela jakin zuten bertako biztanleek. Lehenengo eskaera Udalak berak egin zuten, Gipuzkoako Foru Aldundia-ri egin ere; eskaera formal, ordea,

uztailean egin zuen Antonio Rive-rak, Kultura, Gazteria eta Kirole-tako kontseilariordeak.

Udaletxea 1734. urtekoa da, eta oso berezia.

Euskal Herria Eguna

Amaitzeko, urrian, lehen Euskal Herria Eguna izan zuten Ibarra; horrela, Lizarra (Nafarroa) eta Ibarra senidetu egin ziren. Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolatutako eguna izan zen, eta, guztira, 250 bat pertsona bildu ziren bazkaltzeko eta hainbat ekitalditan parte hartzeko.

Laburrak

Kax-Kax euskara taldea aurkeztu zuten

LEITZA » Kax-Kax euskara taldeak bere burua aurkeztu zuen Aurrera elkartearen, eta herriarrek egindako ikerketa baten emaitzak plazaratu zituen: *2009ko euskararen erabileraren kale neurketaren emaitzak*. Taldearen helburua «euskara bultzatzea eta sustatzea» da.

Lehenengo Sagardo Eguna

LEITZA » Aurrera elkarteak eta ALKE kultur taldeak Lehenengo Sagardo Eguna antolatu zuten ekainaren 13an, eta «harro egoteko moduan» atera zen. Jende ugari elkartu zen herriko plazan, eta guztira 700 botila edan zituzten; beraz, datorren urtean ere antolatzekoak dira.

Inprimatze kostuak aurreztu nahi dituzu? Lehenengo egunetik laguntzen dizugu.



Comercial Bulegoak, S.L.
Tolosaldeko Apataerrea Industrialdea
C/Erroizpe N°5 Grupo E3 - Pabellón 6
Ibarra 20400 - Gipuzkoa

www.bulegoak.com
info@bulegoak.com

Telf: 943 65 24 42
Fax: 943 65 18 32



Behar dituzun funtzio guztiak
makina bakarrean





TOPAKETA. Eskolen Topaketa, Areson (ezkerrean), eta Helena Taberna zinema zuzendaria, *La buena nueva* pelikularen filmaketan, Leitzan. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA - BERRIA**

IKURRINAREN ALDEKO EKITALDI NAZIONALA LEITZAN

Bai Euskal Herriari ekimenak egun guztiko egitaraua aurkeztu zuen Leitzako hainbat herritarren babesarekin, eta udaletxeko balkoitik ikurrina zintzilikatu zuten.

Euskal ikurren alde egiteko, ekitaldi nazionala antolatu zuen Bai Euskal Herriari ekimenak Leitzan 2008ko abenduaren 13an, *Geurea ikurrina!* lelopean. Egun osoko ekitaldia izan zen, eta aurkezpenean, ikurrinaren alde 150 atxikimendutik gora bildu ziren Leitzan.

Atxikimendua eman zuten hainbat herritar aurkezpen ekitaldian egon ziren, eta «gure nortasuna ukatzen dutenen aurrean» zutizteko deia egin zuten.

Besteak beste, hona hemen ikurrinaren aldeko atxikimendua eman zuten herritarren zerrenda: Mikel Nieve txirindularia, Jon Kanflanka segalaria, Asier Olaizola, Oinatz Bengoetxea eta Abel Barriola pilotariak, Mieltxo Saralegi harri-jasotzailea, Patxi Astibia aizkolari ohia eta Xabier Zabalo Leitzako alkatea.

eta etorkizuna bahitzen duten sinboloek euskal herritarren erakundean egon zirenean, eta «gure nortasuna ukatzen dutenen aurrean» zutizteko deia egin zuten ikurrinaren aldeko egunean.

Eskolen 10. Topaketa Areson

Areson, herriko eskolako haurrek eta gurasoek bisita izan zuten maiatzaren 16an. Izan ere, han egin zuten Aresoko, Leitzako, Goizuetako eta Aranoko eskoletako haurrek eta gurasoek 10. topaketa.

Lau eskoletako kideak udaletxearen aurrean elkartu ziren goizean. Eta egun osoan, hainbat ekitaldi izan zituzten: jolasak, txistu eta dantza saioak, antzerkia...

Leitzako Udala, energia kontsumoa jaistearen alde

Nafarroako Ingurumeneko Balia-bideen Zentroa fundazioak «energia aurrezteko eta erabilera era-

ginkorra izateko» proba saioak sustatu zituen administrazio publikoetan, eta Leitzako Udalak egitasmoarekin bat egin zuen. «Klima aldaketaren aurka eragiteko ekintzekin bat egiten dugu, energiaren egoera hobetzeko saioak bultzatuz Energiaren Aurrezpen eta Eraginkortasun Plan bat dela medio», Leitzako Udaleko arduradunen hitzetan.

Leitzako Udalak energia kontsumoa urtean %1 jaisteko konpromisoa hartu zuen: «Argia, gasa, gasolioa... kontsumoaren adierazleak urtero %1 jaistea da hartu dugun konpromisoa».

Hori lortzeko bi bide jarri zituen martxan Leitzako Udalak: batetik, Udalaren eraikinen azterketa energetiko orokorra egitea eta, bestetik, zabaldu zuen zirkularrean ematen diren aholkuak bete-tzea.

'La buena nueva' fimaren emanaldia Leitzan

Leitzan grabatu zuten *La Buena Nueva* filma, eta jendaurreko entseguak ikusmin handia sortu zuen Leitzan. Helena Taberna zuzendaria ere Leitzan izan zen. Sarrera guztiak bukatu ziren.

Abenduaren 14an estreinatu zuten ofizialki Espainiako gerraren inguruko filma. Unax Ugalde, Barbara Goenaga eta Guillermo Toledo aktoreez gain, Leitzako herritar ugari hartu zuten parte *La Buena Nueva* filmean. Andres Martorellek idatzi zuen filmeko gidioa.

TENTAZIOA
LA TENTAZIÓIN
ANTZERKI ETA IKUSENTZUNEZKO EKOIZPENAK

Salamanca pasealekua, 14 - 4. bulegoa - 20003 DONOSTIA
Tel.: 943 44 05 60 - Faxa: 943 42 22 12 - tentazioa@produktzioak.com

Aliprox

Elbarren, 20 Tel.: 948-61 06 57

Elbarren, 71 Tel.: 948-51 00 07

LEITZA

ARESOKO UDALA

tan ita ka

"OTEHITZAI BIRAKA"
"Arrainen bazka"
"Denboraren museoa"

"Hnuy illa"
"TATAMI"

Salamanca pasealekua, 14 - 4. bulegoa - 20003 DONOSTIA
Tel.: 943-42 94 94 - Faxa: 943-42 22 12 - tantaka@produktzioak.com

MARSEILLAKO OBJEKTUAK BASAGAINEN

Hainbat arkeologok hamalau urte daramate Anoetako Basagain Burdin Aroko herrixkan indusketa lanak egiten.

Aurten pieza berezi bat aurkitu dute Basagain Burdin Aroko herrixkan: zelta kulturaren lorratzak dituen lepoko baten zati bat, hain zuzen, Marseillea inguruan zegoena.

Xabier Peñalber arkeologoak aurkikuntza horren harira esan zuenez: «Aurkikuntza horrek bizilagunen arteko merkataritza baina haratago darama teoria hori. Orain artean, berrikuntza guztiak Ebro ibarretik sartu zirela pentsatzen zen, baina aurkikuntza hauen arrastorik ez dago bide horretan. Beraz, Ebroz gain, merkataritza Pirinioen iparraldean dagoen bide zabaletik ere egiten zen. Mediterraneotik Akitaniara eta

hortik Iruen zehar, Gipuzkoa barrenera».

Anoetako Kultur Artxiboa

Anoetako Kultur Artxiboa osatzeko bidean jarri da Udala. Herritarren arteko oroimen historikoaren sorkuntza bultzatu nahi du, eta, horretarako, anoetarren laguntza eskatu du.

Herritarrek dituzten argazki, bideo eta audioko grabazioak eskatu dituzte, horiek digitalizatu ahal izateko eta datu base bat sortzeko.

'Memoria dantzan' emanaldia

Memoria dantzan emanaldia egin zuten anoetarrek herriko festetan. Memoria historikoaren berri ema-

tea izan da emanaldiaren abiapuntua. Horretarako, Anoetan azken 150 urteetan aldaketa sozialak gautu diren bost garai hartu zituzten, eta garai bakoitza sorkuntza artistiko batekin erakutsi zuten.

Guztira 125 herritarrek parte hartu zuten emanaldian.

Anoetako gaztetxea

Hamar urte bete zituen Anoetako gaztetxeak, eta egitarau askotariko bezain oparoa prestatu zuten; batez ere maiatzean izan ziren ekitaldiak. Horrez gainera, urte berezia izan da gaztetxearentzat, zortzi aldiz sartu baitira lapurreta egiteko gaztetxea dagoen Eduarka pabiloietan. Txolarre irratian ere sartu ziren.

Anoetako herri sinesmenen liburua

Anoetako herri-sinesmenak historian zehar liburua argitaratu dute Anoetako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak. Egileak Juan-txo Agirre-Mauleon tolosarra, Mikel Errazkin anoetarra, Maria Jose Hernandez eta Ana Isabel Rodriguez izan dira. Tolosaldeko Historia bildumaren 13. zenbakia da liburua, Anoetari buruz idazten den bigarrena.

Auzolana berreskuratzeko

Ingurumen eta Agenda 21eko Batzordeak bultzatuta, hainbat herritarrek parte hartu zuten auzola-

nean Anoetako hainbat gune garbitu eta txukuntzeko.

N-1 errepideko autobus geltokia, berrituta

N-1 errepidean dagoen Irurako autobus geltokia berritu zuten. Puntu horretan errepidea zabaldu zuten, bai Zilar kalearen ondoan, baita zubia bera ere, geltokian gelditzea hain arrisksua izan ez dadin.

Aurrekontua 391.860 eurokoa izan da. Irurako Udala ez dago gutiz ados egin den proiektuarekin. Hala adierazi zuen Marimi Ugalde alkateak: «Gure ustez, irtenbide hobea izango zen autobusak bibrilgunea hartzea eta gero Laski-barreko errepidetik barrena joatea, baina ez dute erabaki hori hartu».

Lore Amenabar txapel-dun Arrasateko lehiaketan

Lehiaketara saio on bat egiteko asmoarekin joan zen, eta txapelajantzita itzuli zen Lore Amenabar irurarra, Loatzo musika eskolako ikaslea. Arrasateko akordeoi lehiaketa entzutetsuan, haurren mailan, lehenengo postua lortu zuen Lore Amenabarrek 2008. urteko abenduan.

Irurako frontoiaren bi inaugurazio

Irurako frontoiaren bi inaugurazio egin zituzten. Bata, ofiziala, pi-

lota jaialdi profesionalarekin egin zuten, eta ohorezko sarea Antton Gabellanes pilotari ohi irurarrak egin zuen. Bestea, herri inaugurazioa izan zen, Kultur Astean.

Ur araztegi berria Alkizan

Alkizako Udalak hondakin urak garbitzeko Bida sistema erabiliko duen ur araztegi berria izango du. Araztegia abian jartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrek Departamentuak erabaki du 60.000 euroko zuzeneko diru laguntza ematea, kostuaren erdia, Alkizako Udalarri lan horiek egin ditzan.

Araztegia berriak tratamendu biologiko bat erabiltzen du, eta, funtsean, material naturalak dituen iragazki biologiko batez osatuta dago, eta goiko geruzetan zizareek bioiragazkietan gelditzen diren hondakinak metabolizatzen dituzte.

Abian jarri da eskola Larraulen

Udaletik eta guraso elkartetik murgitu duten eskola martxan dago Larraulen. Kultur Etxeko bi gela egokitu dituzte horretarako. 2008-2009 ikasturtean bederatzi haur daude bertan, 2 eta 4 urte bitartekoak.

Haur eskola ere, bi urte arteko, martxan jarri dute dagoeneko. Bost haur izan dira joan den ikasturtean.

Animalia exotikoak ikusi ditu. Basoetan eta mangladietan barrena ibili da. Elurrezko bihurtuak eta eremu izoztuak pasatu ditu, amairik gabeko otalurrak eta bide guztietako harriak. Gorabehera akrobatikoak saltatu ditu, eta zirkuitu ezinezkoak osatu. Orain, mundua konkistatu ondoren, Citroën C4 autoa zure garajera heldu da, zeure neurrira eginiko bertsio batean, eguneroko bizimoduaren behar dituzun segurtasun eta erosotasun hornidurekin. Zain daukazu eguneroko rallya.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



IROVI, SA. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA.
INDUSTRIALDEA Z/G. TEL.: 943 65 18 42. ANOETA/TOLOSA

EHUNKA LAGUN GAZUMEKO PARKE EOLIKOAREN KONTRA

Eskualdeko zazpi udal eta hiru elkarte azaldu ziren egitasmo horren kontra.

Gazumeko parke eolikoaren proiektuaren aurka ehunka lagun elkarretaratu ziren Zelatunen maiatzean. Energia berriztagarrien aurkako ekimena ez zela azaldu zuten. Parke eolikoa horrelako leku batean jartzea ez zuten ondo ikusten. Eskualdean zazpi udal (Aduna, Albiztur, Anoeta, Bidania-Goiatz, Larraul, Ikazte-

gieta eta Zizurkil) eta hiru elkar-tek (Asteasuko Sagain mendi taldea, Erniozaleak elkarte eta Ibarrrako Eneko Aritza kultur taldea) bat egin zuten parke eolikoaren aurkako ekimenarekin.

Asteasuko eskola

Asteasuko Udalak eta Hezkuntza Sailak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, Pello Errota eskola handitu eta berrikuntzak egiteko.

Eraikin berria egingo dute han, 0-2 urteko eta Haur Hezkuntzako gelak kokatzeko. Halaber, Lehen Hezkuntzako eraikina berritu egingo dute.

Bernardo Atxagaren 'Zazpi etxe Frantzian' eleberria

Bernardo Atxaga idazle asteasuarrak *Zazpi etxe Frantzian* eleberria aurkeztu zuen. Horrekin bere helburua bidegabekeriaren ingu-

ruan hitz egitea dela azpimarratu zuten idazleak.

Ipupomamua, Asteasutik kanpo

Ipupomamua haur eta gazte literaturaren inguruko gunea ez dute Asteasun egingo. Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia beste leku bat bilatzen ari dira, Asteasun eraikitzea uste baino askoz garestiagoa izango litzatekeelako.

Zizurkilgo Plan Orokorra

Zizurkilgo Udalak onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak 776 etxebizitza egiteko parada ematen du: 391 libreka, 148 tasatuak eta 237 babes ofizialekoak. Hori da plannaren ezaugarri nagusia.

Zizurkilgo Udalean, «irregularitasunak»

Zizurkilgo Udalean «irregularitasun larriak daudela» salatu zuen Zizurkilgo ezker abertzaleak uztaillean. EAJ-Alkarbide udal taldeak «muga guztiak gainditu» dituela adierazi zuten: «Herriari bizkara emanda karguak hartzea nahikoa ez eta irregularitasunez betetako kudeaketa» daramatela diote.

Segundo Montesezikiko senidetze jaia

Aiztondoko lau herri (Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Villabona) senidetuta daude El Salvadoriko Segundo Montes komunitatearekin. Zizurkil lehengo Senidetze Eguna ospatu zuten.

Hernandorena taldea

«Aspalditik, zenbait forotan topo egiten genuen beti Zizurkilgo jende berdintsuak, eta bi zutaberen gainean —historia eta etnografia— foro txiki bat sortzea pentsatu genuen», esan zuten Hernandorena Kultur Taldeko kideek. «Ikerteketa txikiak egin eta horiek zabaltea» da haien asmoa.



Anoetako Udala

Herriko Plaza, z/g 20270 ANOETA • 943-65 12 00
udala@anoeta.net • www.anoeta.net



IRURAKO UDALA

ZORIONAK !

HITZARI, ESKERRIK ASKO TOLOSALDEKO
EUSKARAREN XAREA SENDOTZEAGATIK

Tel.: 943-69 13 33 / 943-69 16 89 • Faxa: 943-69 33 41
e-posta: irura@udal.gipuzakoa.net



HERNIALDEKO UDALA

hernialde@udal.gipuzakoa.net
Udala: 943 65 44 94 • Ostaturia: 943 65 24 96



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com



Irurako Ikastola

“Heziz hazten goaz”

M. Goi Aingeru Enparantza, 5 • IRURA • Tel.: 943-69 43 74



JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

GABONETAN ERE ELISKARAZ BIZI

HH-LH-DBH

Erniozea Bailarako Ikastola

Villabona Berria 55, 11000 943691702; Ibarren 2/g 11000 943691702; Zizurkil Paganola 2/g 11000 943691705
hildona@ikastola.net www.jesusenbihotzaikastola.com



ANOETAKO HERRI IKASTOLA

anoeta@ikastola.net
Ergoien, 5 • Tel.: 943-65 29 32

Izan eta izaten jarraitu nahi dugulako



OMENALDIA. Remi Aiestaran Villabonako alkateordeari omenaldi jendetsua egin zioten urriaren herriko plazan. ESTI EZEIZA

UZTAILAREN 31, VILLABONAN AHAZTUKO EZ DUTEN EGUNA

Remi Aiestaran Villabonako alkateordea hil zen eguna da uztailaren 31. Herriko jaietan murgilduta zeuden guztiak, Aiestaran lurrera erori zen arte. Herriak haren omenezko manifestazioak egin ditu, eta baita omenaldi jendetsua ere, urriaren 10ean.

Uztailaren 31n hil zen Remi Aiestaran, herriko festen azken egunean. Etxerat-ek hileko azken ostiralean egin ohi duen elkarretartzea egin behar zuten egun horretan, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak debekatu egin zuen, aurretik Pedraz epaileak emandako baimena bertan behera utzita. Ertzaintzaren presentzia handia zen Villabonan, eta, beraz, elkarre-

taratzea ez egitea erabaki zuten antolatzaileek. Ertzaintzak herriari jarraitu zuen, hala ere.

Aiestaran kontzertu bat entzuten ari zen lagun artean, eta ertzainburu bat gerturatu zitzaion; lekukoek esandakoaren arabera, ertzaina probokatzen hasi zitzaion. Aiestaranen neska-lagunak eta lagunak lasaitzeko eskatu zioten, eta, handik gutxira, ibaiaren ondora joan zen Aiestaran. Ingurutik pasatu zen lagun bati la-

guntza eskatu zion, eta hark berehala lurrera erortzen ikusi zuen. Lagun ugari saiatu zen, tartean haren arrea, erizaina lanbidez, Aiestaran suspertzen, baina ezin izan zuten ezer egin. Autopsian azaldu zenez, aortako aneurisma izan zuen.

Herrian heriotzaren berri jakituz, festa ekitaldi guztiak bertan behera gelditu ziren, eta gau horretan bertan manifestazioa egin zuten herriko kaleetan.

Hil kapera udaletxean jarri zuten bi egunean, eta handik herri-ugari igaro zen Aiestaranen azken agurra ematera. Abuztuaren 2an, manifestazio nazionalera deitu zuten, Aiestaranen omenez, eta ehunka lagun izan ziren herrian.

Villabonako ezker abertzaleak ere gogor salatu zuen Ertzaintzaren eta Herrizaingo Sailaren jarrera. Aiestaranen heriotzaren «erantzule zuzenak Ares eta Zapatero» zirela esan zuten, eta Ertzaintza-

ren jokaeraren aurrean «EAJk duen jarrera» salatu zuen. Heriotza gertatu zen egunean herriari «muntaketa mediatiko bat» egin zutelako salatu zuten, eta «Aresen eta Zapateroren estrategia politikoko horrek ondorio zuzenak» izan zituela.

Villabonako Udalak ezohiko bilkura ere egin zuen gertatutakoa salatuzko, eta abuztuaren 6an erantzun zabala izan zuen greba orokorra ere egin zen Villabonan. Tolosaldean, egun horretan, ordubeteko geldialdia ere egin zen.

Omenaldia, urriaren 10ean

Ehunka lagun bildu ziren urriaren 10ean herriko Errebote plazan zinegotzi ohiari omenaldia egiteko. Aiestaran, egindako lana eta, aldi berean, zen bezalako izatea eskertu nahi izan zioten horrela. Ez zen omenaldi soil bat izan, sentimenduz, maitasunez eta esker onez betetako ekitaldi bat baizik. Zinegotzi, herriar, lagun, seme, anaia, mutil-lagun, ikaskide, lankide eta oro har pertsona gisa eman zuten guztiak erantzun bat duela eta, bera, ez egon arren denien bihotzean geratuko dela adierazi nahi izan zioten jaioterrian.

Bi sentimendu nabaritu zitezkeen bertaratu zirenen artean. Alde batetik, harrotasuna, horrelako pertsona bat ezagutu eta maitatzeko aukera izateagatik, eta bestetik, samina, haien albotik betiko joan delako.

Agertokiaren gainetik hainbat eta hainbat lagun igaro ziren, Amaia Agirre bertsolaria, haren Burgosko lagunak, Loatzo musika eskolakoak, Lain taldekoak... Familiakoak ere igo ziren taulara, eta hori izan zen ekitaldiak oine hunkigarrietako bat, agurra dantzatu baitzioten zendutako senitartekari, eta haren argazkiaren ondoan kandelak bana jarri.

Gero Loatzo musika eskolakoak igo ziren, eta txalaparta doinuak entzutearekin batera, Remiren bizitzako hainbat irudi erakutsi zituzten.



ADUNAKO HERRIGUNEA OINEZKOENTZAT

Herrigunea inguratzen duen errepideko lanak bukatu dituzte aurten.

Bi obra garrantzitsu amaitu zituzten 2009an Adunan. Alde batetik, herriko plaza oinezkoentzat baka-



PLAZA. Adunan, herriko plaza oinezkoentzat bakarrik egokitu dute.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

errepidea egitea inguruan; plaza arintzea zen asmoa; orain izan da une egokia, eta diru laguntzak ere etorri dira horretarako».

Adunako hondakin uren araztegi berria

Adunan Ori Erdialdeko hondakin uren araztegi berria egiteko lanak hasi dituzte. Araztegi horrek 19 udalerriri emango dio zerbitzua, eta 2011n martxan egotea es-

pero dute, obrek 20 hilabete iraungo baitute. Guztira ia 25 milioi euroko aurrekontua du proiektuak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Ur Partzuergoak erdi bana finantzatuko dute. Adunako Udalak proiektuarekin ados egon arren «gutxietsia sentitu» dela adierazi zuen lehen harria jaratzeko ekitaldian, eta proiektua egiteko moduarekin ez zuen bat egin.

Laboari omenaldia egin dio Loatzo musika eskolak

Loatzo musika eskolak emanaldi berezia antolatu zuen Adunan, Mikel Laboaren omenez. «Hunkigarria izan zen», Miren Mujika Loatzoko zuzendariak esan zuenez. «Garrantzitsua iruditzen zaigu euskal kantagintza eta bereziki kantuen transmisioa bultzatzea», azaldu zuen. Guztira 150 musikari, abeslari eta dantzari aritu ziren.

Laburrak

Segundo Montes komunitatea babestuz

VILLABONA » Villabonako Udaltzak El Salvadorko Segundo Montes komunitatearekin senidetzea erabaki du. Aiztondo eskualdeko beste udalerrri batzuk, hau da, Aduna, Asteasu eta Zizurkil aurretik senidetuta daude. «Villabonako Udalak komunitate horri bere babesa eta laguntza eskaini nahi dio», esan zuen Josune Arretxe zinegotziak, Villabonako Udaltzak erabakia jakinarazi zuenean.

Bearzana pilotalekuari ongietorria

VILLABONA » Villabonako Bearzana pilotalekua inauguratu zuten uztailen. Hori aitzakiatzat harturik hainbat herri ekitaldi jendetsu egin zituzten pilotalekuan asteburu batean. Bearzana pilotalekua publikoa da, herritar orori irekia. Jendea «bertara kirola egitera joateko» animatu nahi dute Villabonako Udaleko arduradunek.

Pantaila akustikoak N-1 errepidean

VILLABONA » Gipuzkoako Foru Aldundiak 1,5 milioi euro baino zer-


bait gehiago inbertituko ditu Villabona pareko N-1 errepidean pantaila akustikoak jartzeko, zirkulazioak eragindako zarata gutxitze aldera. Lanak 440,850 eta 442,250 puntu kilometrikoen artean egingo dituzte.

Hizkuntza eskubideen egoera Osakidetzan

VILLABONA » Tolosaldeko hainbat udalek bat egin dute Osakidetzan «hizkuntza eskubideak urratzen» direla salatzeo kanpainarekin. Horrela Uema mankomunitateko kide diren 11 udalek eta Villabonako Udalak mozio bat onartu zuten kanpaina horrekin bat egiteko. Besteak beste, kanpainak aditzera ematen duenez, hizkuntza eskubideen egoeraren lehen diagnosis aurkeztu zutenetik (2001. urtean), «osasungintzaren eremua beltzune izan da beti».

Tauni enpresak euskara plana abian jarri du

VILLABONA » Lan munduan euskararen presentzia eta erabilera areagotzen ari da, eta gero eta enpresa gehiago dira euskararen aldeko apustua egin dutenak. Villabonako lan munduan Tauni enpresa aitzindari izan da, Euskara Plana martxan jarri duen herriko lehen enpresa izan baita.



Amasa-Villabonako Udala

TELEFONO INTERESGARRIAK

| | | | |
|---------------------------------|-------------|-------------------------------------|-------------|
| Udaltzaingoa | 943 693 980 | HHI-EPA | 943 690 312 |
| Euskara zerbitzua | 943 693 501 | KZgunea | 943 693 102 |
| Ogasuna | 943 111 494 | Ur-konsortzioa | 943 302 222 |
| Ongizate zerbitzua | 943 693 925 | Bake epaitegia | 943 693 927 |
| Kultura | 943 691 655 | Taxi geltokia | 943 691 838 |
| Kirolak / Gazte bulegoa | 943 694 458 | Olaederra kiroldegia | 943 694 322 |
| Udalalde 21 | 943 692 536 | Jubilatuoen elkarte | 943 691 336 |
| Hirigintza eta zerbitzuak | 943 690 189 | Santiago egoitza | 943 691 112 |
| Udal liburutegia | 943 693 224 | Osasun zentroa | 943 006 970 |
| Kontu-hartzailetza | 943 111 494 | Gurutze Gorria | 943 222 222 |
| Loatzo Musika Eskola | 943 694 549 | DYA | 943 464 622 |
| Haur-eskola Seaska | 943 692 029 | Larrialdiako osasun zerbitzua | 943 461 111 |
| Ikastola | 943 692 321 | Larburu farmazia | 943 691 130 |
| Fleming ikastetxea | 943 691 413 | M ^a Luisa farmazia | 943 690 978 |
| Ernioea institutua | 943 693 733 | | |

